

...eta kitto!

784 zkia. 2011-XI-25

ASTEKARIA

TOKIKOM



Zaporez betetako SANANDRESAK



igogailuak
erreformak
proiektuak
fatxadak
etxebizitzak

Otaola, 27 - eskumako eskilara - 3. ezk.
Tel. 943 820 407 ● Faxe. 943 820 724
www.eslaban.com





Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
klinika dental hartz klinika

**Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak**

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Isasi 20 - behea
eibarbus@eibarbus.com
www.eibarbus.com

Bulegoa: 943 20 17 33
Garajea: 943 17 34 99
Mobila: 629 48 15 92
Faxa: 943 70 16 20

- Bertoko eta nazioarteko BIDAIAK
- Enpresa eta eskola GARRAIOAK
- TXANGOAK

EIBARBUS
autobusak

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maider Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.050 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

IBILERA.- Ibiltzeko modua. "Txori batena lezkotxe ariña haren ibilleria". Jokabidea, portaera. "Haren ibilleria ez jata gustatzen".**IBILTARI.-** Asko ibiltzen dena, ibiltzen zalea dena. "Ibiltarixa, demoniua, leku baten eziñ iraundakua".**IDEKO.-** Antzeko. "Zure semia eta nire anaia idekuak juan eta etorri guztietarako". Adin bereko. "Hórrek bixak idekuak dira, eskolan be alkarregaz ibilli ziran".**IDI-HANKA BAT PERRA TA GUZTI JAN.-** Goseztoari buruz esateko. "Horrek idi-hanka bat perra ta guzti jango leuke".

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-maillez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

asteko

HEMEROTEKA



esaldiak

"Urte osoko prestaketa behar da Behobia-Donostia moduko lasterketa berme osoarekin egiteko eta atletek urtero hainbat aldiz simulatu beharko lituzkete lasterketan eman daitezkeen egoerak. Ez litzateke txarto egongo osasun agiria eskatzea parte-hartzailei, irteeratik kilometro batera dagoen herrialdean egiten duten moduan"

(Enrique Pérez de Ayala, Politikina Gipuzkoako kirol sendagilea)

"Entzuten dudanean agian euskara izan zela Ingaltarrako Mesolitoko hizkuntza... Amerikako kontinentea Euskal Herriko Solutre aldiko aztarnategietatik populatuta dagoela diote ere. Horrek kutsu arrazista du: Europako abizenak dituzten AEBetako arkeologoek nahiago lukete euren herrialdeko populazioa Europatik joan izana, Asiatik joana izan beharrean"

(Alvaro Arrizabalaga, arkeologoa)

EIBARKO
UDALAGIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Euskararen Nazioarteko Eguna gogoratuko da abenduaren 3an. Ekimena Eusko Ikaskuntzaren barruan sortu zan 1949xan eta Nestor Basterretxea eskultoriak 2005ian egunerako propio diseinatu eban logua bihurtu da, bestalde, urteroko ospakizunaren identifikaziño ikurra. Euskal hizkuntzaren unibertsaltasuna aldarrikatzen da holako egunian urtero, munduko herrialde diferentiak antolatzen dittuen jarduerekin. Eibarren be, azken urtiotako martxari jarraituta, programaziño berezixarekin ospatuko da eguna, abenduaren 2xan eta 3an. Udalak, ... eta kitto! Euskara Elkarteak, Udal Euskaltegixak, AEK Euskaltegixak eta Eibarko Euskal Herrian Euskaraz-ek, Diputaziñuak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak babestuta antolatu dittuenak atzo emon zittuen ezagutzera.

Mintzodromua eta gurasuak, Euskeraren Eguneko protagonista

Eibarren euskera zenbat erabiltzen dan jakittek egitten daben kale neurketako aurtengo datuen arabera euskeraz jarduten daben eibartarrak %22'8xa osatzen dabe guztira. Adiñari begiratuz gero, egixa da ume eta gaztiak dirala euren artian euskera gehixen erabiltzen dabenak (%44'8 eta %27'1, hurrenez hurren); hori holan, herrixan euskera zabaltzeko oindiok be egin biharrekuak asko dira eta, zelan ez, datorren astian Euskararen Nazioarteko Egunaren aitzakixarekin antolatutako guztiak mesedegarrixak izango dira euskeriarendako.

Junkal Txurruka Udaleko Euskera Teknikarixak kontau deskunez, "Eibarren 2009xan hasi giñan Euskeriaren Eguna herri maillan ospatzen. Orduan urtian Juan San Martinen "Zirikadak" eta "Eztenkadak" liburuen jendaurreko irakorketia egin zan eta iaz, barriz, jende mordu bildu eban "Kantu kan-

tari" izeneko kalejiria antolatu zan. Eta aurtan, Euskeriaren Naziñoarteko Egunian, Mintzodromua egingo dogu Untzagan. Helburua, Eibarko erakunde eta alkartietako jendia alkatu eta, euskera goguan hartuta, ekitaldi alaixa egittia da, hori da gure asmua behintzat".

Ume txikixen gurasueri orientaziño zerbitzua eskinduko detse, umiak euskera gehixago erabiltzeko zelan motibau eta bestelakuak azaltzen



Mintzodromua, Eibarren ez eze, probintziako beste sei herrittan be egongo da martxan.



Euskeraz gustura Mintzodromuan

Mintzodromua antolatzeko proposamena Diputaziñotik ailegau jakue Udalekueri eta Eibarren ez eze, Gipuzkuako beste 6 herrittan be egingo da. Ekimenaren izena irakorritta, somatu leike zer izan lei-

kian "Mintzodromo" dalakua, baiña edozelan be, antolatzailiak gorabehera guztiak azaldu deskuez: "Lau lagunekin osatutako taldetxuak, mahai baten bueltan alkatu eta eguneroko gaixen gaiñian, lagunarteko giruan barriketan jardutia izango da kontua. Gai-xak errezak izango dira, ez da aparteko maillarik euki bihar parte hartzeko: Eibar eta eibartarrak, euskera... horrelakuen gaiñian berba egittia pentsau dogu, azken batian helburua jendia euskeraz berba egittia dalako. Horretarako, herriko alkarte, ikastetxe eta euskaltegixetako jendia batuko dogu bertan eta, horrekin batera, eguardi partian 12.00xak aldera gerturatzen diran herrittarrak be eukiko dabe parte hartzeko aukeria. Aurreikusitta dakagunaren arabera, 80 bat lagun batuko dittugu Mintzodromuan euskeraz berbetan. Bestalde, horretarako preparauko dittugun



Mintzodromuan launaka alkartuko dabe jendia mahai baten bueltan, zeozer hartzen, eguneroko kontuen gainian euskeraz berba egitten.



mahaixen artian hika jardun nahi dabenendako mahai berzixak egongo dira".

Aurreko urtiotan egindakua-ren moduan, herriko alkarte guztiak dagoz ekitaldixetan parte hartzera gonbidautu. Antolatzailliak diñuenez, "barriketan euskeraz eta gustura, kafe edo baxoerdi baten inguruan jarduteko aukera paregabia izango da, zalantza barik. Hortaz, animau eta parte hartu, iazko moduan aurten be prime-ran pasauko dogu-eta".

Gurasuak Berbetan Eguna

...eta kitto! Euskara Elkartian normalizaziñuarekin ardura-tzen dan Ainara Labadok azal-du deskunez, "Gurasuak Berbetan izeneko ekitaldi barri honekin gurasuak euskeriarekiko daken jarreran eragittia billa-tzen dogu. Helburua, euskeraz badakitenak euskeriarekiko ja-rre-rera positibua izatia eta hori seme-alaberi transmititzia da, euskeria erabiltziaren garran-tzixaz ohartaraziarekin batera.

Eta euskeraz ez dakitenak be seme-alaberi euskerarekiko ja-rre-rera positibua helaraztia nahi

dogu. Holan, bakotzak ahal da-ben neurrixan, etxian ematerik ez dakena, kasu honetan eus-

Mintzodromua

Abenduak 2

11.00etatik 12.30xetara
Lehen Hezkuntzako ikasliak
12.30xetatik 14.00etara
DBH eta Batxillerreko ikasliak. Udaletxeko sarreran (patixuan).

Abenduak 3

12.00xetatik 14.00etara
eibartarrak eta alkarte eta erakundietako kidiak. Udaletxeko sarreran (patixuan).

Gurasuak Berbetan

Abenduak 3

11.00etatik 13.30xetara eta 17.00etatik 20.00etara
Untzagan, karpan.

11.00etatik 12.00xetara:
eskulan taillarrak (HH2-HH5: 2 tailer; LH1-LH3: tailer 1; eta LH4-LH6: 2 tailer).

12.30etatik 13.30xetara:
jolasak (adiñaren arabera banatuta).

11.00etatik 13.30xetara:
gurasueri zuzenduta, aisialdi eskintzaren erakusketia eta aholkularitza zerbitzua.

Globuak banatuko jakue-z bertarutzen diran ume guztieri.

17.00etatik 18.00xetara:
Peio Añorga ipuin kontalarixa (HH4-LH1).

17.00etatik 20.00etara:
gurasueri zuzenduta, aisialdi eskintzaren erakusketia eta aholkularitza zerbitzua.


18.00xetatik 19.00xetara:
Koko-jantzi eta makillaje taillarrak.

19.00xetatik 20.00etara:
DJ Arno.

keria, beste errecurso edo ba-liabide batzuk erabillitta (aisial-dixan, kirolian...) emotia posi-ble dala erakutsi nahi detsagu eta horregaittik, Euskeriaren Egunaren aitzakixarekin, aben-duaren 3an, zapatuan karpa haundi bat ipiñiko dogu".

Eskulanak, jolasak eta erakusketia

"Emaixozu zure onena: eus-keria" lemari jarraituta, karpan ume txixxeri eta euren gurasue-ri zuzendutako jarduerak gara-tzeko asmua dake: "Haur Hez-kuntza eta Lehen Hezkuntzako umieri eta euren gurasuendako pentsautako eskulan-taillerrak, jolasak eta bestelakuak egongo dira martxan goizian zihar eta, horrekin batera Eibarren umien-dako euskeraz daguan aisialdi eskintza osua bilduko daben erakusketia be ipiñiko dogu. Eta horrez gain, bizpahiru teknika-ri/dinamizatzailllek gurasuekin jardungo dabe, bakotxaren se-me-alaben kasu espezifikueta-rako lagungarria izan leikian in-formaziñua emoteko. Arratsal-dian ipuin kontalarixa, DJxa eta eskulanak egingo dira, egun osoko programaziñua osatzen".



RUFINO GORROTXATEGI ASKASIBAR

2011ko azaroaren 20an hil zen,
81 urterekin

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

...eta Euskara E Gabon KATAI



SOKADUN
ESKUMUTURREKOA:
11,80 euro




KATEA:
9,45 euro

LAUBURU
ZINKILIKARIOA:
15,80 euro

EH ZINKILIKARIOA:
22,60 euro



NAGUSIENDAKO
KAMISETAK (S-M-L-XL-XXL):
25 euro




UMEENDAKO
KAMISETAK (4 URTETIK 12RA):
20 euro



BABEROA:
15 euro

ZIBA:
7 euro



ABANIKOA:
15 euro

JOKOA:
9 euro



AMANTALA (LAUKIAK):
T: 1, 2, 3, 4
34 euro

ARGAZKI MARKO HIRUKOITZA:
14 euro

ARGAZKI MARKO ERTAINA:
14 euro

ARGAZKI MARKO HANDIA:
16,50 euro



KITTO-AMANTALA:
10 euro




KITTO-AMANTALA:
15 euro

Etorri Olentzerori zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...eta kitto! Euskara E
ASTELEHENETIK BARIKAKURA, 10.00etatik 13.00etara / 1

IKUSI, AUKERATU eta EGIN

kitto! Elkartearen Metako KATALOGOA

DISKA ETA DVDAK







Katalogoak dituen irabaziak euskera sustatzen erabiliko ditugu

TIRAGOMA:
3 euro




MAHAI-GAINEKOA:
11,60 euro

**ARBOLARAKO
OLENTZERO:**
3,50 euro



GILTZATAKOA:
10,60 euro



**eta
kitto!**
Euskara Elkarte

KARRIKIRI
EUSKARA ELKARTEAREN KATALOGOA

ATERAKO ALFONBRA: 12 euro

Elkartearen bulegoan (Urkizu, 11)
6.30etatik 19.30etara

ENKARGUA!



autuan

MEDICUS MUNDIREN ERAKUSKETA UDALETXIAN

Gaur, azaruak 25, andrazkuen kontrako indarkerixia salatzeke eguna da eta, horren harira astelehenaz geroztik Gipuzkuako Medicus Mundi alkartekuak preparautako "Sexu eta Ugalketa eskubidiak dira giza eskubidien artian gizatiarrenak" izenburuko erakusketia dago martxan udaletzeko patixuan (abenduaren 2ra arte, astelehenetik barixakura, 09.00etatik 14.00xetara). Eibarko Emakumien Mahaixak preparau daben programaren barruan antolatu dabe erakusketia. Hortik aparte, gaur eguardixan kontzentraziñua egin dabe udaletxe parian eta arratsaldian, 18.00etan Portalean (3. pisuko ikastaro gelan) Nagore Lafage-ri buruzko bideoforuma egingo da.

TAXI-TARIFAK GORA

Udalak Gipuzkuako Taxisten alkartiak eskatutakuari erantzun detsa eta, taxistak kobratzen daben tarifak 2010eko julixotik aurtengo julixora bittarteko KPlari jarraituta %3 igotzia eta herri-barrurako tarifa barrixa onartuta. Tarifa merkiena astegunetan 07.00etatik 22.00ak bittartian kobratzen dabe

HAIIRI LAGUNIZEKO KANPAINIA

Pedro Zelaia Memorialaren aldeko taldiak Haiti-ra eguzki-lanparak bidaltzeko kanpaina ipiñi dau martxan: San Andres egunian, Untzagan muestra modura ipiñiko daben lanpara baten aldamenian zozketatzeko hiru opari ipiñiko dittue eta zozketan sartzeko txartelak salgai egongo dira han bertan.

Azitañen errekia garbitzen

AURREKO ASTEBURUAN DEBA, MENDARO ETA ELGOIBARRREN ERREKIA GARBITZEKO SAIUETAN hasittako bidari segidu zetsen domekan Eibarren, Azitain aldian jardun eben boluntari-xuak. Hori zan errekiak dakan sarbiderik txarrena eta, horregaittik, bertara bakarrik helduak, erretratuan ikusten diran sei lagunak sartu ziran. Boluntarixio moduan jardun nahi eben umiak Ermura bialdu zittuen. Errekia garbitzeko egin diran jardunaldi bixak Ibai Lagun proiektuaren barruan garatu dira.




Sei lagun ibilli ziran errekia garbitzen.

"Balletomania" Kezka taldiari opari

AZARUAREN 14-N KEZKA DANTZA TALDEKUAU EKITALDI BEREZIXA EUKI EBEN PORTALEAN, entseguetarako erabiltzen daben dantza gelan. Jose Maria Martinez "Coque" artistaren bizi-tzaren barri jaso eben zuzenian Carmen Kilner,

The Basque Children of 37 UK alkarteko kidiaren ahotik. Ekitaldixa, gerratik ihesi Habana ontzixan Inglaterrairaiño juandako artistak 1952xan egindako "Balletomania" margolana Kezka dantza taldiari emoteko aitzakixarekin antolatu eben. Coquek oso gertutik segidu



eban Pirmin Trekuk dantzan egindako ibilbidia eta Kezkari oparitutako kuadroa dantzarixa Royal Balletean jardundako sasoikua, entsegu bat ikusi ostian margotutakua da.

1951ian jaixotakuen bazkarixa

ZAPATUAN OSPATU EBEN URTEROKO BAZKARIXA AURTEN 60 URTE BETETZEN DITTUANAK. Erretratuan ikusten dittuzuenak ederto pasau eben eguna, Untzagan alkartu ostian txikiteuan ibillita eta, jarraixan, Iruki sagardotegixan bapo bazkalduta. Asteburu honetan, barriz, 1937an jaixotakuen txandia izango da. Untzagan 12.00xetan alkartuko dira talde-argazkixa etartzeko eta ordu erdi geruago piskolabisa hartuko dabe Zezenbide kalia, Peña Txinberan. Ipuuako tabernetan txikiteuan ibilli ondoren, 14.45xetan hasiko da bazkarixa, Iruki sagardotegixan.





IRAZABAL
clínica dental



Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.
Tel. 943 208552

ORTODONTZIA IKUSIEZINAREKIN...

irribarrerik onena lortuko duzu!

**...eta atera egiezu etekina hortz-zuriketan ditugun
PROMOZIO BEREZIEI.**

Zatoz eta KONTSULTA egin!

ELGOIBARko San Miguel gainean San Andres Menu Berezia

- Kalabazin txupitua bost pipetbeltz erara.
- Ahate-foieren moussea Módena eta konpotekin.
- Madagaskarreko otarrainxka basatia plantxan.
- Bakailao kokotxak pil-pil erara.
- Iberikoaren masaila ardo beltzarekin.
- Intxaur biscuit-a txokolatearekin.
- Kafea eta ardoa (kriantza).

39,50€+ BEZ

*Jaietan ondo pasatu...
eta mahaian gozatu...*



Belaustegi Baserria

JATETXEA

www.belaustegi.com

**Modistilletan
Menu Berezia,
ondoren DJa eta
opari bereziaren zozketa**

Abenduak 10, zapatua
garrantzitsua **ERRESERBA egitea**



INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:


Tel. 943 74 31 02

asteko

110

datua

dira, batzbeste, Udalak hillian tramitatzen dituan keja eta proposamenak. Aurten, hillaren 22xa bittartian, 1.216 totalian. Horretatik 249 (%20'47) kaleko objetuekin lotutakuak dira, 163 (%13'40) argiztapenaren ingurukuak eta 133 (%10'93) kaleko altzarixekin zerikusixa dakenak.



Giro eziñ hobia euki eben nagusixak./ L. ITURBE

Enpleguaren gaiñeko plana Eibarrerako

GEMMA ZABALETA ENPLEGU SAILBURUA EIBARREN EGON ZAN AURREKO ASTIAN ETA, UDALEKO ORDEZKARIXEKIN egindako billeran esandakuaren arabera, Eusko Jaurlaritzak 2012. urtiaren hasieran martxan ipiñiko daben Udaletarako Enplegu Planarekin bat egingo daben gure herrixan kokatuko dabe eskualde osorako bulego nagusixa, Bittor Sarrasketa kalia dagan Lanbideren buleguan bertan. Jaurlaritzatik bultzatutako planarekin hasteko, herrirako enplegu-plan baten erredakziñua pagauko dabe. Planak Eibarrek prestakuntza zeñi enplegu aldetik dituan premiñak aztertuko ditte eta, horretarako, enpleguarekin loturaren bat daken tokixan-tokiko eragilliekin mahaixak osatuko ditte. Miguel de los Toyos alkatiaren berbetan, "Plan horretatik prestakuntza-proiektuak, enplegurakuak eta prestakuntza-enplegurako proiektuak sortuko dira. Azken honek Lantegi Eskolia ixtian geratu dan hu-



Udaletxian egiñ eben billeria Jaurlaritzak eta Udalak.

tsunia beteko dabe, prestakuntza eta enplegua eskintzeko filosofixiari eutsita. Lantegi Eskolia eskintzen eban prestakuntza gehixenbat eraikuntzari zuzendutakua zan, baiña Planari jarraituta eskinduko dogun prestakuntza enpresak eskatzen dabenari moldatutakua izango da".

Desfile arrakastatsua Untzagan

UNTZAGAKO JUBILAU ETXEKUAK HILLEBETE HONETARAKO PROGRAMAZIÑO ZABALA PREPARAU dabe, lehelengoz atiak zabaldu zittuala 11 urte pasau dirala ospatzeko. Bestiak beste, aurreko barixakuan moda desfilia egiñ eben, Corral gizonezkuen modia eta El Corte Inglés-eko andrazkuena erakusteko. Pasarelia zein pasarela gaiñekuak apaintzeko Flores Blanca eta Lakett estetika eta makillaje zentruaren babesa jaso eben. Eta San Andres jaixen aurretik, bixar, hildako bazkidien aldeko mezia ospatuko dabe San Andres elizan, 12.30xetan. Bertan Untzaga abesbatzakuak hartuko dabe parte eta, mezia amaittuta, ohorezko aureskua dantzatuko dabe. Jarraixan, jubilau etxian bertan piskolabisa eskinduko jakue bazki-



dieri eta euren famelixakueri eta, horren ostian, 14.30xetan bazkidieri omenaldixa egitteko bazkarixa hasiko da. Jubilauak azken orduan aldaketa egin bihar izan dabe eta Arrate hotelian egittekoa zan bazkarixa Kantabrian egingo dabe (autobusa 14.15etan urtengo da Ego Gaiñetik). Bazkalostian oroigarrixak banatuko detsez omenutako jubilauei eta dantzaldixa be egongo da, Jose Airasekin.

Plazakuak 1.000 otar oparittuko ditte

GABONAK GERTURATZEN DOIAZENEZ, MERKATU PLAZAKO SALTZAILLIAK KANPAIÑIA BEREZIXA IPIÑI DABE MARTXAN aste honetan bertan, 50 euroko gastua egitten daben bezeruen artian 1.000 otar oparitzeko asmuarekin eta, oparitzeko dituen otar guztiak amaittu arte martxan egongo

da promoziñua. Gastua ez da toki edo egun bakarrian zertan egin bihar, erosketa tiketak gorde eta kopuru horretara ailllegatzian horrek aurkeztuta otarra zuzenian jaso leike. Hori bai, bezero bakotxak oparixa gehixen jota birritan jasotzeko aukeria baiño ez dau izango, kanpaiñia honetan behintzat.



PSE-EE larri ibilli da nagusitasunari eusteko

DOMEKAKO HAUTESKUN-DIETAKO EMAITZAK ES-KUAN, PSE-EE EIBARREN LEHELENGO INDARRA IZATEN SEGITZEN DAU 4.310 boto eskuratuta, baiña boto-kopuruari begira bigarren geratu zan Amaiurri 200 botoko aldia baiño ez detsa kendu domekan. EAJ-k, bestalde, oin dala sei hillebeteko botaziñuan galdutako botuak berreskuratu ditte eta 2008xan 3.447 boto eskuratuzian lortu eban markia gaintitu dau oinguan, 3.504 boto jasotzian. PP-ren ibilbidia be antzerakua izan da: udal-hauteskundietan lortutako botuak (1.112) ia bikoiztia lortu dau, 2.047 boto eraman dittu-eta. Alderdi barruan gorabeherak izanda be, 560 boto eskuratuta Ezker Anitzak ixa eutsi egin detsa maiatzian izandako emaitzari (573), baiña lau urte atzera egiñez gero (705) jaitziera nabarmena izan dau.

Domekakuak Espaiñiarako Kongresu eta Senadurako hauteskundiak izan ziran, udal hauteskundietatik diferentia, baiña asteburuan izandako emaitzak geurera, hau da, Udalera ekarritta, aldaketa inportantia ikusiko gendukez, bestiak beste

aspaldidanik Eibarko Udalian alderdi konstituzionalistak daken nagusitasuna galdu egingo leukielako: PSE-k (7) eta PP-k (3) alkartuta dittuen ziñegotzixak baiño bat gehixago lortuko leuki Amaiurrek (6) eta EAJ-k (5) alkarrekin.

Euskal Herrixan PP-UPN izan da boto gehixen etara daben alderdixa, baiña ezta hurrik eman be Espaiñian lortutako aldiarekin (3.000 boto etera detsaz Amaiurri). Eserlekeri begira, ostera, Amaiur da garaille, zazpi parlamentarekin; EAJ-PNV-k jarraitzen detsa, bostekin, eta gaiñera indar abertzalier alorreko nagusitasuna gal-



Egunian gertautakuak batu zittuan gure ale berezixak. / LEIRE ITURBE

duta. Geroa Bai-rena da beste parlamentari abertzalia (Nafarroan abertzaliak lehelengo aldiz lortu dittue ordezkari bi Madrillen). PSOEk jaitziera nabarmena izan dau: 2008xan 11 diputadu izatetik 5 izatera pasau da eta PP-k oin dala lau urteko eserleku kopuruari eutsi detsa (5). Bestalde, Alberto Unamunzaga eibartarrak (Amaiur) senadore eserlekua lortu eban domekan eta azken lau urtiotan Madrillen izan daben eserlekuari agur esan bihar izan detsa Jose Luis Vallés-ek (PSE-EE).

Domekako hauteskundier jarraipen berezixa egin zetsan ...eta kitto!-k, ohikuari jarraituta: botua emoteko orduan al-

derdi bakotzeko ordezkariari kanpaiñaren gaiñian eta emaitzen aurreikuspenaren inguruan galdetu zetsen, egunian zihar pasautako bitxikerixak jasozittuen, mahai bakotzeko boto-zenbaketako emaitzak momentuan batu zittuan eta, horrek eskuan, alderdi guztier emaitzen inguruko baloraziñua eskatu zetsen. Horrek guztiak eta emaitzen taulak, grafikuak eta beste bestelakuak gabian bertan interneten (www.etakitto.com webgunian) zintzilikatu eban ale berezixan isladatu zittuan eta astelehenian papelean musutruk banatu eben herriko kiosko eta beste saltoki batzuetan.

World Kafiak agurtu eban Barrikuntzaren Astia

AURREKO ASTIAN, BARIKAKU GOIZIAN, HERRIKO IKASTETXE ETA ENPRESEN ARTEKO TOPAKETIAK AGURTU EBAN gurian Udalak lehelengoz antolatu daben barrikuntzari eskindutako astia. Debegesarekin alkarlanian preparautako jardunaldixan EPC, Tekniker, Neurtek, APEL, Urkotronik eta Cadenas Iris-eko ordezkariak Uni Eibar-Ermua, IFES, Berritzegune eta Armerixa Eskolako



arduradunekin berbetan jarduteko aukeria euki eben. Bestiak beste, lan-merkauan daguazen premiñak ezagutzera emon zittuen enpresariak eta danen artian horri ikastetxiak ahalik eta modurik egokixenian zelan erantzun leiki aztertu eben. Barrikuntzaren Astiaren barruan hainbat bisita antolatu dittue Armagintzaren Museuan, Teknikerren eta Alfa Arten.

Pintxorik onena? Cepa tabernarena

Arrate Kultur Elkarreak antolatutako VIII. Pintxo Txapelketako irabazleak astelehen iluntzean erabaki zituzten epaimahaia osatu duten Vicente Belda, Josu Gimenez eta Ruben Etxanizek: Pintxo Onenari Saria Urkiko Bar Cepak aurkeztutakoak eraman du, bertako produktuekin egindako pintxo onenari saria Karrika tabernakoak eta aipamen berezia egin diote Txoko tabernakoak aurkeztutakoari. Horrekin batera, lehiaketan parte

nean, azoka eta kartel lehiaketako irabazleekin batera jasoko dute saria.

Gauetik goizera

Horrela erabaki zuten pintxoaren egitea Juan Carlos Guillének eta Rosa Revert-ek osatutako bikoteak. *“Sasoiarekin lotutako pintxoia izan da gurea, ondo apainduta hori bai eta, perretxiko eta onddoak aprobetxatuz, zaporeen leherketa eskainiz”*, azaltzen digu Juan Carlosek pintxoaren ezauga-



na ozpina, sagarra eta franbuesaren beste batekin eginda dago. Aurkezpena landu genuen, ukitu desberdina emanez”, jarraitzen du. Saltsa desberdineko lau ontzi erabili dituzte, *“makina baten antzerako prozesuari ekinez. Erraza izan da eta denak nabaritu dute aipatutako zaporeen leherketa hori”*.

Halakorik espero zuen galdetuta, ezetz diosku Guillének, *“baina jendea aurkeztera animatu nahiko nuke, benetan. Gozamina da”*. Aurretik ere, Bossan lan egiten zuenean, *“2004an izan zen: pintxoetan berrikuntzei ematen zen saria irabazi nuen”* gogoratzen du.

Herenegun berarekin berbetan gengozela pintxoak

izan zuen arrakasta aitortu zigun: *“Orain hemen jendea dago partidua ikusten telebistan eta gaur bertan 40 bat pintxo saldu ditugu, normalean 4-5 baino gehiago ez ditugunean saltzen”*.

24 parte-hartzaile

Dozena bi taberna animatu ziren azkenean parte hartzera, askotariko pintxo modalitateekin: Cepak “Udazkena” aurkeztu zuen moduan, Anardik “Rubik-en kuboia” egin zuen, Ambigú “Jaixa”, Aterpek “Bonboi sorpresa”, Deporrek “Bakailao konfitatua”, Foxtter-ek “Kalabazinen sumendia”, Irukik “Txangurro lasagna”, Karrikak “Brotxeta ekologikoa”, Kultuk “Sannandreseko rapea”, Koskor-ek “Lurra itsasoa”, La Terrazak “Hegaluzea Otxandiano erara”, Agiñaspik “Baratza eta itsasoa”, Oishik “Baserría pintxora”, Paulaner-ek “Pikilloaren sekretua”, Suberoak “Otarraínka”, Txokok “Maite nazazu Ché”, Zubi-Gainek “Ortuko ostadarra”, Batzokiak “Odoloste kremadun bolobana”, Birjiñapek “Bakailao azaloreak”, Bossak “Udazken pintxo” eta Chalchak “Baserriko kutiziak”, besteak beste.



Pintxoaren presentazioak badu bere garrantzia horrelako lehiaketetan. / LEIRE ITURBE

hartu duten tabernetan pintxoak probatu dutenek emandako botoak jasota, publikoaren 1. saria El Ambigú-k eraman du, 2. saria Aterpek eta 3. saria, berriaz, Cepak.

Antolatzaile eta epaimahaikideek beste ezer baino lehen eskerrak eman nahi dizkiete parte-hartzaile guztiei, *“pintxoak prestatzeko eta aurkezteko orduan erakutsi duten ilusiorengatik eta egin duten behar-rengatik”*. Aurkeztutako pintxo guztien kalitatea azpimarratuta, erabakia hartzeko zailtasuna aipatu dute. Lehiaketa antolatzen lagundu duten Eibar Merkataritza Gune Irekiari eta Udalari euren esker ona ere adierazi nahi diete.

Irabazleek San Andres egu-

rriak deskribatzerakoan. *“Pikilogia hartu, gaztaiarekin -Idiazabal bat- busti, etxean egindako pikillo piper batzuk, porru-entsalada bat urdaiazpiko eta apioarekin egindakoa eta, gainera, intxaur erdia. Eta txapiro saltsa tanta batekin eta Mode-*



Epai-mahaia pintxo onena zein zen erabaki zuen moduan, pintxoak probatu zituztnek ere izan zuten zer esatekorik txapelketan. / LEIRE ITURBE

BEZeRo GUZtiE_NdaKO San ANDRes ZORiontsuak!



Otaola etorbidea, 3 - atzea

Iruki

Sagardotegia

(Hiper Eroskiren alboan)

Tel. 943 20 68 44
irukieibar@hotmail.com
www.irukieibar.com

ZONA WIFI

LUR PE

music

DISCO BAR

guridi rugby taberna




GORA SANANDRESAK!!!

- Kafe bereziak
- Musika onena...
- ... GIRO ONEAN etorri eta ondo pasatu Sanandresak



Txurrut

San Juan, 4 AC

zabalik goizeko 9.00etatik



birjiñape, 1 behea
tel. 943 20 71 00

SOKOA

Zubi-Gain

URKIZUKO DORREETAN



Urklizu, 11-behea Tfnoa. 943-254060

Ego-Gain

ANBULATEGIAREN AURREAN



J. Etxeberría, 2 Tfnoa. 943-207165

Ogitarteko, kazuelita, tapa eta pintxo berezietan
E S P E Z I A L I Z A T U A K

Egitaraua

Azaruak 30,
eguztena,
San Andres Eguna

09.30.- XXXIII. SAN ANDRES NEKAZAL
AZOKA-ren epai-mahaixaren lanaren
hasieria eta ganadu erakusketia.
Untzagan.

11.00.- USARTZA TXISTULARI
BANDAREN KALEJIRIA.

12.00.- Narbaiza eta Gorrotxategi
BERTSOLARIXEN ETA Jainaga
eta Narbaizaren TRIKITILARIXEN
EMANALDIXA.

12.30.- PLAZA DANTZARA
ERROMERIXIA Jainaga eta Narbaiza
trikitilarixekin eta Kezka dantza
taldiarekin. Untzagan.





13.00.- San Andres Azoka, pintxo
txapelketa eta kartel LEHIAKETAKO
IRABAZLIERI SARIXAK BANATZIA.
Untzagan.



Sanandresak Gaztetxian

Jaixak Herrixak Herrixandako alkartiak eta Eibarko Gazte Asanbladakuak San Andres bezperarako preparau dittuenetarako berotzen juateko, gaur 21.00etatik aurrera Iparragirre kalia daguan gaztetxian kontzertua eskinduko dabe Awaking The North, Artaza Combat eta New Breed taldiak (sarrerak 3 eurotan salduko ditue). Eta hillaren 29xan, 19.00etan Untzagan hasitta Urkizu alderaiño poteuan abiatuko dira, han 22.00etatik aurrera bertsoariak lagun-dutako afarixa hasteko. Afarirako txartelak 6 eurotan salgai dagoz Depor, Karrika eta Buenos Aires tabernetan.

SANANDRESAK
2011
EIBARRIEN



Cuevas, Orbegozo eta Antzerki Jardunaldixak, Bakillauaren Ohorezko Kofrade

Eibarko Bakillauaren Kofradixiak domekan, hillaren 27xan bere agendako hitzordurik inportantienari helduko detsa, XVIII. Batzar Nagusixa edo kapitulua ospatuta. Urteroko martxari jarraituta, estaduko zein atzerriko herrixetatik etorritako kofradixak batuko dittuan ekitaldixan herriko personaje eta talde ezaguneri omenaldixa egingo detse, Ohorezko Kofrade izendatuta. Aurtengo omenduak Asier Cuevas korrikalarixa, Iñaki Orbegozo musikarixa eta Jose M^o Cornago eta Juan Ortega Antzerki Jardunaldixetako antolatzailliak izango dira.

Zapatu gabian kofradixetako kidiak afarixa egingo dabe, baiña Bakillauaren Kofradixaren XVIII. Kapitulua domekan, 10.30xetan hasiko da, kofradixetako ordezkari xeri ongietorrixa eta hamarretakua Arrate Hoteleko kafetegixan. Ondoren, 11.30xak aldera Usartza Txistulari Bandakuak lagunduta kalejiran juango dira, Portalearaiño eta hantxe, Goruntz abesbatzakuak alaittuko daben ekitaldixan ohorezko kofrade barrixen izendapena egingo dabe.



Jesusek deitutako lehen apostolua izan zen San Andres. Eibarko patroia da, baita ere, eta urtero azaroaren 30ean ospatzen da bere eguna. Gure herria San Andres elizaren inguruan sortuta egonik, jaieguna da azaroaren azken eguna. Festarako aukera egongo bada ere, inguruko baserrietakoentzat zita berezia izaten da Sanandresetakoa, Eibarko azoka nagusia delako, eta Eibarko eta kanpotik jaieguna ospatzera datozenen arreta eurengan eta euren produktuetan egongo delako.

Sanandresak, jaiegun bat baino askoz gehiago

Egun nagusia eguaztena bada ere, azaroaren 13tik dihardute ospatzen Sanandresen programaren barruan daude ekintzak. Gaur, adibidez, ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatutako San Andres Gazte Bertso Jaialdia egingo da 22.00etan Portalean; txistorrak izango du protagonismoa biharkoan VIII. Txistorraren Egunarekin; domekan, berriz, Bakailao Kofradiaren XVIII. Kapituluak egingo da; San Andres bezperan dantzaldia egongo da DJ Arnoren eskutik Untzagan 23.00etatik 02.00-etara; baina benetan herritarren

gehiengoak espero duen eguna San Andres eguna bera da, azaroaren 30a.



35 gazta-ekoizle izango dira azokan. / LEIRE ITURBE



84 erakusle

San Andres egunean XXXIII. San Andres Nekazal Azoka egingo da. Untzagan 30x15 metrotako karpa bat kokatuko da hainbat postu txikiz inguratuta, 50x15 metrotako beste bat Txaltxa Zelaian eta beste bat



Barazki-ekoizleak hamalau izango dira Eibarren, hiru fruta-ekoizlerekin batera.. / MAIALEN BELAUSTEGI

Nekazal Azoka Untzagan eta Txaltxa Zelaian kokatuko da, guztira 84 erakusle batuko dituen goiz osoko jardunaldian

Justizia Jauregiaren parean, non abereen erakusketa bat egingo den. Guztira 84 erakusle batuko dira herrian: 6 esti-ekoizle, 14 barazki-ekoizle, 3 fruta-ekoizle, txakoli ekoizle bat, 22 ogi-ekoizle, 3 lore-ekoizle eta 35 gazta-ekoizle.

Egunean zehar, bestetik, Usartza Txistulari Bandak kalejira egingo du 11.00etan; Narbaiza eta Gorrotxategi bertsolariak, eta Narbaiza eta Jainaga trikitilariak emanaldia eskainiko dute 12.00etan; Plazara Dantzara Erromeria egingo da 12.30etan Kezka-koen eskutik; eta egunari amaiera emateko, Sostoa Abesbatzak Zarzuela emanaldia eskainiko du Coliseoan.

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

ITURRI
ARDOAK
ETXAKO ARDOAK
ERLANTZAKO ARDOAK
BARRIO ARDOAK

50 bikote bakailao onenaren bila

Ez, ez dira itsasora joango eta kainaberarekin arraina arrantzatzen saiatuko. XIX. Bakailao Txapelketan hartuko dute parte eta su artean euren trebezia erakutsi behar izango dute bakailaoa prestatzen. Euren lana baloratzen, gainera, maila handiko ahoak egongo dira.


Domekan Untzagatik pasatuz gero, lehia bizia somatuko duzue giroan. Helburua? 50 bikoteren artean bakailao goxoe-

na egitea. Hori zein izango den Josean Azpeitia, Jose Ramon Agiriano, Hector Barrenetxe, Jesus Artola, Xabier Osa eta Josu Mugerzak erabakiko dute, baina seguru parte-hartzaileek ez diela erabaki erraza izaten lagako.

Hasiera batean 67 bikotek eman zuten lehiaketan parte-hartzeko izena, baina gehienez 50 egon ahal zirenez, zozketa egin behar izan zuten antolatzailerak. Untzagan elkarren



Parte-hartzaileen kopuru altua dela-eta, zozketa egin behar izan dute aurten ere. / SILBIA HERNANDEZ



aurka arituko direnak, beraz, aukeratuak dira, zorteak aukeratuak, eta bikote bakoitzak bere aukera aprobetxatu nahi izango du 19. aldiz egiten den lehiaketa famatua eskuratzeko.

Janari ederra prestatu eta gero jateaz, eta irabazi gero inguruko sukaldarien artean lortzen den ospeaz gain, bakailao onenen egileek bestelako sariak ere eskuratu dituzte.

Irabazleek, adibidez, garaiakurrak, txapelak, 150 euro, eta

Alkorta Anaiak, Dinastia Vivanco, Soc. Coop. Virgen de la Estrella olioak (Maimona) etxeek emandako produktuak jasoko dituzte; bigarrenek garaikurra, 90 euro, Alkorta Anaiak, Dinastia Vivanco, Soc. Coop. Virgen de la Estrella olioak (Maimona) etxeek emandako produktuak; eta hirugarrenek 30 euro, eta Dinastia Vivanco, Soc. Coop. Virgen de la Estrella olioak (Maimona) etxeek emandako produktuak.



Musika eta dantza kilometro bateko txistorra erretzeko

Bihar ondo jan, dantza egin eta ondo pasa nahi duenak zita egokia dauka Untzagan egun osoan zehar. Eibarko Txirindulari Elkarteak antolatuta IX. Txistorraren Eguna egingo da eta kilometroak bizikletan bakarrik egiten ez direla erakutsiko dute. Izan ere, kilometro bateko txistorra jarriko dute

bertara hurbiltzen dutenentzen eskura.

Eguedian emango zaio hasiera ofiziala Txistorraren Egunari. 12.00etan Iruki sagardotegiaren eskutik ekitaldiraren hasiera emango zaio txotxarekin Untzagako plazan. Horrela, 15.00ak arte txistorra eta edari salmenta egongo da.

Gaztetxoek Sakako Asier Arrizabalagaren zezentxo eta poniekin jolasteko aukera izango dute Toribio Etxebarrian Eibarko Dultzaineroek kalea musikaz girotzen duten bitartean 12.15etatik 13.00etara. Honen ostean, bestetik, Memorial Valenciaga 2011 II. Argazki Lehiaketako sariak banatuko dira, eta 14.30ak arte Eibarko

Dultzaineroek ekitaldia eskainiko dute Untzaga plazan. Antolatzailerak, 15.00etan, jatekoa izango dute Kamarroak elkartean, ondorengo lan eta festarako indarrak hartzeko.

Arratsaldeko saioari gogor ekingo zaio Txistorraren Egunean. 18.00etatik 21.30etara Arno DJak disko-festa eskainiko du Untzagan, eta 18.30etatik aurrera Txistorra eta edarien salmentari hasiera emango zaio berriro. 21.30etan eguneko momenturik emozionanteena iritsiko da: zozketa handia. 3.200 euro banatuko dituzte guztira saritan. Hala ere, egunean zehar ezustekoak, esker onak egongo dira baita ere.

EGITARAUA:

12.00 – Ekitaldiaren hasiera txotxarekin Iruki sagardotegiaren eskutik Untzagan.

12.15-13.00 – Marques de Sakako zezen eta poniek 15 urteko beherakoentzat Toribio Etxebarrian Eibarko Dultzaineroek alaituta.

13.00 – Memorial valenciaga 2011 II. Argazki Lehiaketako sari banaketa.

13.00-14.30 – Eibarko Dultzaineroen ekitaldia Untzagan.

18.00-21.30 – Disko-festa DJ Arnorekin Untzagan.

18.30 – Txistorra eta edarien salmentaren hasiera.

21.30 – Zozketa handiaren hasiera. 3.200 euro saritan.

GIPUZKOA BERRIKETAN

GUK ERE
EUSKARAZ

z e i s x b
e n o

b t
r a u p
e n

2011ko abenduaren 3a
Euskararen Nazioarteko Eguna



Gipuzkoako Foru Aldundia



LASARTE-ORIA

EIBARKO MINTZODROMOA

Abenduaren 2an, 11.00etatik 14.00etara, *udaletxeko sarreran*

Abenduaren 3an, 12.00etatik 14.00etara, *udaletxeko sarreran*

Rosa Gisasola eta Hector Barrenetxe dira aurtengo Maridaje jardunaldietan omenduak. Eibarren tradizio handiko gozogile eta saltzaile bikote honek ondo merezitako omenaldia jasoko du bihar 09.00etan Krabelinek (autobusak 08.30etan irtetzen dira). Eibar bihotzean daramatela ederki erakusten dute eurekin berba egiterakoan.

- Bihar omenaldia jasoko duzue Krabelinen, baina nola hasi zen guzti honen historia?

HECTOR: Eibarren 15 urterekin hasi nintzen gozogile moduan aitarekin. Solera Eibarrean zeukan gozotegia bere bazkidearekin, estankoko Pedrorrekin. Orduan dena nahastuta egoten zen (pastelak eta abar), oso gauza bitxia zen. 1959an hasi ginen lanean, Armeria Eskolan ikasketak amaitu eta limarekin nire abilezia erakutsi ostean aitak gozotegian hasteko esan zidanean (barreak). 1962an banatu eta Antxon gozotegia sortu genuen Estaziño kalean eta gero beste berri bat Dos de Mayon (gaur egun Toribio Etxebarria dena). Anaia eta bere emaztearekin egon ginen lanean eta, asko ginenez, Donostiara etorri eta Labeak sortu genuen 1985an (gozogintzarako labeak sortzen zituzten bazkideekin). 1993an bakarrik lanean hasi ginen Donostiako Gipuzkoa plazan, eta gaur egun ia 60 pertsonari lana ematen dien zortzi denda eta gozogintza-lantegia dauzkagu.

- Kontsumitzaileen gustoa asko aldatu dira hasi zinenetik gaur egunera arte?

HECTOR: Ez, uste dut jendeari gauza tradizionalki gustatzen zaizkiola.

ROSA: Jendeak produktuak ikusi nahi ditu eta saltzen duenarekin berba egin, tratu pertsonal hori. Gazteek, agian, supermerkatuetara joateko ohitura gehiago daukate, baina zer-



HECTOR BARRENETXE & ROSA GISASOLA:

“Eibarren saltzen zen pastel kopurua demasekoa zen”

bait berezia nahi badute, hori egiten duten profesionalengana jotzen dute. Produktuei dagokienean, bestetik, orain sorta handiagoa dago.

HECTOR: Hozkailuek baliatzen dute hori, hontza behar duen generoa erabili baitezakezu gozoak sortzean. Lehen zera geneukan ('sota, caballo y rey'), irasagarra, bizkotxo eta bizkotxo bustiak. Baina Rosa, nik uste dut jendea betiko gauza horien bila datorrela gozotegira.

Rosa: Egia esan, jendea nahiko klasikoa da. Gaur egun, adibidez, ez dakizu zenbat saltzen den txokolatea. Baina txokolate ona, eh. Txokolate ona nahi duenak guregana jotzen du, baina berdin bazaizu nolako txokolatea jan, supermerkatuan txokolate tableta erosten duzu eta kitto. Kakao portzentai ezberdinekin egiten ditugu guk txokolateak, bonboiak gaur egun lehen baino arinagoak dira, zapore askokoak, osagai anitzekoak... lehen bonboi bat jaten zenuen eta denek zapore bera zeukaten. Gaur ez, alde handia dago batetik bestera.

Hector: Frantsesak txokolate-kontsumitzaile handia denaren zorte handia daukagu. Gabonetan, adibidez, ez dute turroirik jaten, txokolatea baizik.

- Eibarren gozozaleak garela esango zenuke?

ROSA: Demaseko gozozaleak gara eibartarrak!

HECTOR: Donostiara iritsi ginenean... “hemen

jendeak ez du gozozaleak jaten!”. Eibarren saltzen zen pastel kopurua demasekoa zen. Hemen norbaiten amaren urtebetetzea bazen, semeek, loibek, ilobek eta alboko etxeok pastelak jasotzen zituzten etxeetan. Hori gaur egun ez da existitzen.

ROSA: Orain bakoitzak bere kontsumorako erosten ditu pastelak.

- Zuek tentazioa muturren aurrean zenukaten. Gozozaleak zarete?

BIEK: Asko!

HECTOR: Ez al da igartzen? Eta hori erregimena egiten gabiltzala (barreak). Beti gustatu zaizkigu. Gogoratzen dut nola lehen aitak apurra ekartzen zituen.

ROSA: Nik egunero jan behar dut zerbait gozoa.

HECTOR: Gainera, gauzak probatu egin behar dira pastel berriak sortzeko.

- Zer suposatzen du zuentzat omenaldia jasotzeak?

HECTOR: Pixoihalak jarri behar izan ditu berriro nire emazteak (barreak). Inoiz baino emozio gehiago dauka. Eibar beti izan dugun gauzarik handiena da. Oso pozgarria da omenaldia jasotzea.

ROSA: Ezusteko handia.

- Nolako izango da biharko eguna?

HECTOR: Urduri egongo gara, ziur.

ROSA: Familia, lagunak... etorriko dira eta berezia izango da.



“Eibartarra”
da ekitaldirako
egin duten pastel berezia.



INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

26. zenbakia. 2011ko azaroa

Publizitatea: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. Tel. 943 20 67 76. Faxe. 943 20 28 72

EUKI

FINKAK

 API 323

- **GESTIO INMOBILIARIOA:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren **FINANTZIAZORAKO BIDEA:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **INFORMAZIO PERTSONALIZATUA**



Toribio Etxebarria, 1 943 20 03 58 Faxe. 943 82 04 03 fincas@euki.com

LARRAGEST. EIBAR

HELBIDE BERRIA: Calbeton, 22-24 behea
Tel. 943 20 00 12 / 690 61 07 15

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Barrena	Apartamentu ederra. Ganbara. Igogailua kaletik.	110.000 €
EIBAR	Ifar kale	Berrizteko. 2 logela. Igogailua.	135.000 €
EIBAR	San Juan	Igogailua. Kanpora begira.	153.000 €
EIBAR	Romualdo Galdos	3 logela. Ganbara. Igogailua. Kalefakzioa.	160.000 €
EIBAR	Jardiñeta	3 logela. Balkoi bi. Etxe ederra. Oso eguzkitsua.	162.000 €
EIBAR	Muzategi	Eraikin berria. 2 logela. Garajea. Trasteroa aukeran (30.000 €).	197.100 €
EIBAR	Romualdo Galdos	Altua. 3 logela. Igogailua. Ganbara.	205.000 €
EIBAR	Eibarko Txikito	Bikaina. 2 logela. Igogailua. Ganbara.	207.350 €
EIBAR	Barrena (Lidl)	1a berria. Aukera ona. 3 logela. Garajea aukeran.	233.000 €
EIBAR	Urkizuko dorreak	Bikaina. 2 logela. Altua. Balkoia.	250.000 €
EIBAR	Urkizuko dorreak	3 logela, 2 komun. Azkenengo pisua. Sartzeko moduan.	277.000 €
EIBAR	Zuloagatarren	Ederra. Altua. Balkoia. 110 m ² . 4 logela.	306.500 €
EIBAR	Ego-Gain	Eraikin berria: Aukera ona. Guztiz jantzita. 3 logela	Galdetu



A.P.I.: Rosa Juaristi

Arragueta, 2 bis B-behea
20600 EIBAR

Tel. eta Faxa:

943 20 08 60

rosa@inmobiliariajuaristi.com

www.inmobiliariajuaristi.com

- salerosketak
- errentamenduak
- trasasoak
- balioztatzeak

agencia
inmobiliaria
Juaristi



**...eta kitto! aldizkariaren
INMOBILIARIEN GEHIGARRIA**



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!
943 12 13 95 Bidebarrieta 29



Errebal, 20ra aldatu gara
Tel./Faxa. 943 203 333 Mobila. 656 766 344
www.inmoarregi.com



**Hurrengo
gehigarrian
agertzeko
deituiguzu:
943 20 67 76**



**INMOBILIARIA ESTUDIO
PS XXI**
Higiezin-zerbitzuak
eta Barne arkitektura
Tel./Faxa. 943 74 23 06 20870 ELGOIBAR
www.inmobiliariapsxxi.com

943 201213
615 474057



IbaiOndo
inmobiliaria



Bidebarrieta 24, behea

ZURE INMOBILIARIA

- Etxe eta lokalen erreformak.
Interiorista: Nagore Goikoetxea (mokka interiorismoa)

Operazioa gurekin itxi ezkerro deskontu ikusgarriak obretan.

www.ibaiondoinmobiliaria.com

TEEN-
AJEA

Agirre eta Trokaola Portalean egindako sari banaketan.. / LEIRE ITURBE



Lehengusuak dira eta, joan den zapatuaz geroztik, **Asier Errasti Laburmetrai Jaialdiko Eibarko lan onenaren egileak. Scheiße (Kaka) da euren lanaren titulua eta zuzendari, aktore eta produktore lanak euren gain hartu dituzte. Epea amaitu baino ordu laurden lehenago entregatu zuten laburmetraia!**

HAITZ AGIRRE & IOSU TROKAOLA,
zinemagileak:

“Guk nahi genuena islatu dugu”

- Espero zenuten Asier Errasti Lehiaketako sari lokala jasotzea?

Ez, beno, guretzat ezustekoa izan zen finalera pasatzea, ez genekielako Eibarko zenbatek hartzen zuten parte lehiaketan. Gero, finalera heltzean, aukerak genituela pentsatzen genuen: soinu eta irudi onak ditu laburmetraiak; istorioa tontokeri bat da, baina ideia polita iruditzen zitzaigun... Aukerak genituen. Ez genuena uste zen hain eibartar gutxi aurkeztuko ginenik. 12 urte daramatza martxan lehiaketak, baina badirudi ez duela arrakasta herrian. Gu orain dela 10 urte ere aurkeztu ginen.

- Bai ala?

Umetxoak ginen eta txorrada-txo bat egin genuen, orain egin duguna baino handiagoa!

- Txorrada bat izango da, baina irabazi egin duzue.

Nahi genuena islatu dugu eta gustora geratu gara lanarekin.

- Scheiße da laburmetraia titulua. Zer nahi du esan?

‘Kaka’ esan nahi du. Filma ikusi aurretik asko esan nahi ez

zuen titulua ipini nahi genion. Pertsonaia aurkeztu baino lehen ez da erakusten bera zein den eta sorpresa bezala nahi genuen hori erakutsi.

- Nolako izan da sortze-prozesua?

Haitz: losuk aspaldi zeukan ideia buruan, baina lehiaketa parte-hartzeko epea amaitzeko 3 egun falta zirenean deitu zidan esanez laburmetraien lehiaketa martxan zela Eibarren. Ez geneukan beste zerbairetan pentsatzen denborarik.

Iosu: Fokoak erosi genituen, gure kamara hartu...

Haitz: Bestetik, bagenekien editatzeko programa nola erabili, losuk hortan dihardulako ikasten, niri asko gustatzen zaidalako eta orain dela 10 urte esperientzia izan genuelako.

Iosu: Entregatze ordua 13.30etan bazen, guk 13.15-etan entregatu genuen lana.

- Eta aktoreak zeintzuk izan ziren?

Gu geu. Kamararen aurrean eta atzean egon gara.

Elkarrizketa osoa: www.etakitto.com

sanandres jai zoriontsua opa dizuegu!

www.aldatze.org

aldatze

Ikastearen saria, berez, gauza horretaz jabetzea izaten da, gero bizitzan zehar horren erabilera egin edo, beste barik, ezaguera gehiago edukitzeko. Armeria Eskolan, hala ere, ikasleei jakituria hori emateaz gain, ikasleen artean onenak saritzen dituzte orain dela urte batzuetatik hona.

Egiten duten Batzar Orokorren ekitaldiaren barruan banatzen ditu urtero ikasleen Guraso Elkarteak Ikasketa Saria. Armeria Eskolan ikasten diharduten ikasle onenei ematen die, horrela, saria, eta baita espezialitate ezberdinetan nota onenak atera dituztenei.

2010-2011ko edizioan Joseba Azpilikuetak eta Arkaitz Cascánek jaso dituzte sari bereziak. Azpilikuetak fabrikazio mekanikaren ekoizpeneko programan egin ditu ikasketak, eta Arkaitz Cascánek erregulazio sistema eta kontrol automatikoetan.

Ikasle bi hauek lortutako sariaz gain, beste espezialitate batzuetako ikasleek ere lortu dute eurena: Mekanizatuko 2. mailako Mayra Gonzalez Lloninek, Telekomunikazio eta Informatika Sistemen 2. mailako Iker Martinez Fernandezek, Instalazio Elektriko eta Automatikoaren 2. mailako Alotz Nuñez Amundarainek, Produktu Mekanikoen Garapeneko 2. mailako Ander Azpiazu Zubiak, Mantenu Industrialeko 2. mailako Haritz Aldabe Peñak, Ekipo Industrialen Mantenuko 2. mailako Eusebio Duque Romanek eta Ekipo Industrialen Mantenuko 3. mailako Igor San Miguel Fernandezek.



Armeria Eskolako Ikasleen Guraso Elkarteak banatzen ditu urtero sari hauek.

Armeriako ikasle finenak

Formakuntza profesionala asetu

Inguruko talde sozialen formakuntza profesionala asetzeari da Armeria Eskolak di-tuen helburuetariko bat, zentruaren eragiteko eremuaren garapen sozio-ekonomikoa sustatuta. Helburu horiek betetzeko, eskolak hainbeste urtetan lortutako esperientzia gizarte eta enpresen eskuetan lagatzen du.

Era berean, zentroarekin hain lotura estua duten Ikasle Ohien Elkartearekin eta Teknikerrek harremana ezartzea, eta inguruko enpresekin hartueman interenpresariaren katalizatzaile izatea da Armeria Eskolaren asmoa. Horregatik, gehien nabarmentzen diren ikasleak saritu nahi izaten ditu estrategia horri jarraituta.

ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

*Lomo iberikoaren carpaccio-a
Etxeko foie-a
Otarraixkak Martini erara*

*Legatza plantxan edo
Bakailaoa pikillo saltsarekin*

*Solomilloa plantxan edo
Basurde erregosia*

*Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Turroi moussea*

*Etxeko Errioxako kiantza ardoa,
sagardoa edo beste*

Asteleheneretik
barixakura
EGUNEKO
MENUA
15 €

Tokia gordetzeko:
943206348

25 € + BEZ


Urkizu, 18 — 943 120194
MUGIKA




Lujua eta Estrada garaile Eibarko Rallysprint-ean

XABIER LUJUA ETA JESUS ESTRADA (MITSUBISHI EVO X) IZAN ZIREN EIBARKO I. RALLYSPRINTAREN IRABAZLEAK.

Euren atzetik Iñaki Alberdi eta Nerea Odriozola (BMW M3) geratu ziren eta, hirugarren postua eskuratuta, Joxe Labaka eta Aitor Otaegik (Mitsubishi EVO V) 2011ko Euskal Rallysprinten Txapelketa eskuratu zuten.

Lehenengo edizio honetan aipagarria da Escuderia Eibar-ko Iñaki Narbaiza eta Eneko Artetxek (Citroen C2 R2 Max) egin zuten lasterketa. Lehen aldia zen pilotuak karrera batean parte hartzen zutena eta 4. postuan amaitu zuten bikoteak.



Eguraldi ona lagun izan zuten auto-gidariak Rallysprint-ean. Iñaki Narbaizak, bestlade, ezustea eman zuten eta trofeo mordoan eraman zuten etxera. / LEIRE ITURBE

Eibar Eskubaloiak lidergoa lortu du

ESIBAR ESKUBALOIKO TALDE NAGUSIA PROBINTZIAKO 2. MAILAKO LIDERRA DA azken jardunaldian Ordizia Bikuña Sporti 52-19 irabaziz. Orain arte jokaturako partidu guztietan egurtu egin dituzte aurrean izan duten aurkari guztiak eta domekan Arrasaten jokaturako dute, 11.30etatik aurrera. Jubenil mailako taldeen artean, A-k 14-48 irabazi zuten Bergaran eta B-k hiru golenatik galdu zuten Beristain Banaketa Elgoibarrekin. Kadeteetan C taldeak bakarrik jokatu zuten astebu-

ruan, 53-14 irabaziz Ereintza Aguaplast-i; emaitza horrekin, maila horretako Eibarko hiru taldeak sailkatu dira Euskadiko txapelketara igotzeko hurrengo faserako. Infantil mailan, bestalde, A taldeak 18-40 irabazi zuten Elgoibarren Txarridunarekin, B taldeak 19 na berdindu zuten eta Melfun Eibar Eskubaloia-ri galtzea egokitu zitzaion.



Eibar KE - Gimnástica domekan 17.00etan Ipuruan

MANIX MANDIOLAK ZUZENTZEN DUEN EIBAR KE-K TORRE-LAVEGAKO GIMNASTICA JASOKO DU DOMEKAN 17.00etan Ipuruan. Joan den astean Amorebietari 0-3 irabazi ostean, 4. postuan dago kokatuta talde armagina, baina 2. postutik 10.era (Gimnastica dagoen postua) dauden taldeak puntu biren alde daukate euren artean bakarrik. Eibarrek, beraz, aurkari zuzen bati irabazteko aukera dauka etzi.

V. Alberto Ormaetxea Memoriala

Eibar KE-k, bestetik, Real Sociedaden aurka jokaturako du V. Alberto Ormaetxea Memorialean. Hilaren 30ean jokaturako dute 18.00etan Ipuruan eta lortutako diru guztia DEPARKElentzat izango da. Sarreraren prezioa 10 euro nagusientzat eta 5€ euro umeentzat izango da, eta Koskor, Ongi Etorri, Buenos Aires, Ametsa, La taberna de Luis, Bar Juanito, Casino, Trinkete, Markina Estankoa, La Terraza eta Agiñaspin erosi daitezke (partidua hasi baino ordu bat lehenago sarrerak atera daitezke 3. eta 4. lehiatiletan).



Hiru pilota partidu gaur Astelenan

ASTELENA FRONTIOIAK DEPORREKO PILOTARIEN HIRU PARTIDU JASOKO DITU GAUR. 20.00etan Deporrek Narbaiza eta Santa Maria eta Zegamako bikotearen arteko kadeetako neurketarekin hasiko da jaialdia. Ondoren, Zubizarreta eta Andonegi Elgoibarko bikotearen aurka arituko dira jubencil mailan, eta Lantz eta Agirresarobe Azkoitiako bikotearen kontra jokaturako dute ostean.

Aurreko zapatuan jokaturako jaialdian, bestalde, Egaña-Bengoe-txea bikoteak 22-9 irabazi zion Mujika-Zinkunegi Tolosako bikoteari. Bihar 18.00etan jokaturako dute itzulerako partidua eta eibartarrei nahikoa zaie 10 tanto egitea mailari eusteko.

Concepto Egileren garaipena (10-3) Zalamabor-en aurka areto-foballean



BEHAR ZUEN IRABAZTEA DEBABARRENA ARETO-FOBALLEKO TALDE NAGUSIAK eta garaipen erraza eskuratu zuten, CD Zalamabor-en aurrean. Orain arte taldeak ezin izan du garaipenik eskuratu etxean, nahiz eta aurretik ere merezi izan duen beste hiru partiduetan. Bihar neurketa garrantzitsua izango du, probintziako bi talde onenak neurtuko baitituzte indarrak Tolosan: Laskorainen aurkako partidua 18.00etan jokaturako da, Oria hiriko Usabal kirroldegian.

BEZerO GUZtiEndaKO San AndRes ZORiontsuak!



ESPEZIALITATEAK Egunero goizeko
Gosariak 07.00etan
Plater konbinatuak zabaltzen dugu

☎ **943 20 24 01**



Iturri
 pintxo eta
 kazuelatxoak

943 70 05 22



Pintxoak *Disfrutatzera*
Hanburgesak **Razioak**
Konbinatuak **Sandwichak**
Bokatak

SNACK BAR
 ISASI, 3



**KAFEETAN
 ETA PINTXOETAN
 ESPEZIALIZATVA**

Toribio Etxebarria, 21
 Tel. 943 20 70 07
20600 EIBAR



**VIVALDI
 PUB**

Eibarren
 San Juan, 9

SAN ANDRES JAI ZORIONTSUAK



UNBE TABERNA
 * Pintxoak
 * Bokatak
 * Bazkariak

Tel. 943 70 00 81
EGUNEROKO MENUA

**GURE
 LEKU**

Isasi, 3
 20600 EIBAR ☎ 943 20 71 89



**CHALCHA
 JATETXEA**

*Menu bereziak
 banketeak
 despedidak...*

JAI ZORIONTSUAK
ISASI, 7 TEL: 943 20 11 26



943 20 61 43
**ALDATZ
 taberna**

*Martxa nahi
 baduzu... Zatoz!
 Zure zain gaude*

San Juan, 3

Taberna - Snack
POZKARI

*Pintxo beroetan eta
 hotzetan espezialistak*

J. Etxebarria, 11
EIBAR ☎ 943 70 20 37

Zarautz-Eibar neurketa handia bihar 16.00etan Unben

MULTZOKO LEHENENGO POSTUA JOKOAN IZANGO DA BIHAR 1. NAZIONAL MAILAN partidurik galdu gabe dauden talde bien arteko lehia. Kostaldeko taldea eta Eibar Rugby Taldea sailkapeneko 1. postuaren bila dabilta eta garaileak urrats handia emango du Ohorezko B mailara igotzeko play-offetan parte hartzeko.

Asti zelaian jokatuko den neurketa 16.00etan hasiko da. Hierros Anetxeko bigarren taldea ere indarberrituta dago eta, azken jardunaldian, 26-12 irabaziz Gernika C-ri.

Errugbi eskolaren aurrerapausuak

Infantil mailako taldeak primeran jardun zuen domekan



Unben egindako kontzentrazioan, aurrean maila handiko aurrerapausuak izan arren. Alebin maila-

koa, bestalde, Arrasateko jardunaldietan izan zen, bi partiduetan nagusituz.

Asola-Berriko hiru hautagai Euskadiko txapela janzteko

BITTOR ASTIGARRAGA DA LIDER BERRIA (14 TXIRLO-REKIN), AITOR ETXANIZEK JARRAITZEN DIO GERTUTIK (13) eta Ibai Díez da hirugarrena (11rekin) Elgetan jokatutako azken jardunaldiaren ondoren. Hor, 93 bolariren artean,

Beñat Gómez eibartarra eta Francisco García azpeitiarra izan ziren onenak, zazpi txirlo botata, eta seirekin geratu ziren Lasturreko Gotzon Uranga eta Jose M^a Larreategi eta Astigarraga Asola-Berrikoak. Bihar jokatuko da hurrengo jardunaldia Markinan, Barinagako bolatokian.



Urki Eibartarrak baino gehiago izan zen


ASIER CORDÓNEK ETA ROIK LORTUTAKO BI GOLEKIN NAGUSITU ZITZAION URKI EIBARTARRAK-I UNBEN jokatutako derbian. Adur atezainak segurtasun handia eman zion Alberto Albistegik zuzendutako taldeari, defentsak egindako lana borobilduz. Emaizta horrekin gure herri-

ko talde biak berdinduta daude sailkapenean, 14 punturekin, eta bost puntura dute Gazteak, 1. erregionalean jokatzen duen Eibarko hirugarren taldea. Aurreko denboraldietan gure ordezkari onena izan dena kaskarrago dabil aurten, azken jardunaldian Sorluzen bana berdindu bazuen ere.

METALEZKO ERAIKUNTZAK ETA ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA



Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak burdin eta altzairu herdoilgaitzetan.



Beti Berria Bezala

TAILERRA: Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 121 367 Faxa: 943 120 150

ERAKUSKETA: Urkizu, 26 - behea
Tfnoa. eta Faxa: 943 127 401

info@ulmar.net - www.ulmar.net

– **ULMAR-en Renove Plana:**
% 15eko deskontua

– **EUSKO JAURLARITZAren Renove Plana:**
% 22ko deskontua

Manuel Lópezen omenezko xake txapelketa berezia


EKITALDI BEREZIA ANTO-LATU DU KLUB DEPORTIBOKO XAKE BATZORDEAK, EUSKADIKO ETA GI-PUZKOAKO XAKE FEDERAZIOEN LAGUNTZAREKIN, uztailen autobus istripuan hildako Manuel López klubeko kidea omentzeko. 15 minutuko partida azkarrez osatutako I. Memorial hau, gainera, Euskal Herrian lehenengo aldiz "Fischerren Ausazko Sistema" erabiliz jokatuko da: jokalaria bakoitzaren lehenengo errenkadako piezen ordena ausaz erabakita zozketa baten bidez, horrela 960 posizio posible eskainiz partida hasteko. Euskal Herri guztiko taldeak etorriko dira, goizeko 10.30etan hasita, goizez eta arratsaldez jokatuko den torneora.



Sei eibartar Karakateko igoeran

AURREKO URTEETAN GURE HERRITIK JOANDAKO LASTERKETARI GUTXI IZAN DIRA ELGOIBARKO PROBAN, baina oraingoan sei eibartar izan ziren parte hartzen aurreko zapatuan jokatutako igoeran. Guztira 88 atletek hartu zuten parte Karakateko igoeran, inoiz baino gehiago. Igor Fernández izan zen eibartar onena, 26. postuan eta bere atzetik sailkatu ziren Jabi Aldai (54.a izan zen), Iosu Eljalde (57), Ramon

Birigai (71), Asier Garde (74) eta Ane Ziaran (77). Durango-ko Oier Ariznabarretak marka berria ezarri zuen, 28 minutu eta 17 segundorekin, eta Maite Maiora izan zen emakumerik onena, 35'45"ko denborarekin.



Sanandresetako jaialdiak zaletu asko biltzen ditu Eibarko Katedralean.

Aspek antolatutako jaialdi berezia Astelenan San Andres egunerako

TITIN III.AK ETA BARRIOLAK XALAK ETA MERINO II.AK OSATUTAKO BIKOTEARI EGINGO DIO-TE AURRE eguazten arratsaldean, 17.00etan hasita, Astelena frontoian jokatuko den San Andres eguneko jaialdi berezian. Partidu nagusia maila handikoa izanda ere, aurretik jokatuko den neurketa ez da makala izango, hor jardungo baitute nor

baino nor Aritz Lasak eta Peñagari-kanok alde batetik eta Idoatek eta Pascualek bestetik. Jardunaldiarekin amaitzeko, Apezetxea eta Larrinaga Ongay eta Arruti menperatzen ahaleginduko dira. Aurretik sarrerak eskuratzeko, 661-259009 (Olaya) telefono zenbakira deitu dezakezue, goizez (12.00-13.00) eta arratsaldez (15.30etatik aurrera).

33.151
...eta kitto!-ko
GABONETAKO LOTERIA

Loteria hartzaileen artean, abenduaren 14an GABON-OTARRA zozketatuko da

SALGAI DUZU:
Udal Euskaltegia
AEK Euskaltegia
Isasi okindegia
Zabaleta okindegia
Untzaga prentsa
Urkizu prentsa
Kultu taberna
Mujika harategia
Valenciaga jantzidenda
Izadi loradenda
Zubi-Gain kafetegia
San Andres gozotegia
Dibutec fotokopiadenda
Bolintxo okindegia
Bankoa
...eta kitto!

Zezenbide, 4
943 53 00 66
www.lakett.com

Lakett
ESTETIKA
MASAJEA

Ondo pasan Sanandresetako!
OPARITU GURE BONO BERRIAK:
Kirogolf masajea
Tuina masajea
...

ORDUTEGI JARRAITUA: 09.00-19.00. ZAPATUETAN: 09.00-13.00

CATALANA OCCIDENTE Aseguruak

Emilio de los Toyos - C046815351532K Aseguru Agentea

- ERANTZUKIZUN ZIBILA
- AUTOAK
- BIZITZA ETA JUBILAZIOA
- OSASUN ASEGURUA
- ISTRIPU BANAKAKO ETA KOLEKTIBOAK
- ARRISKU ANITZETARAKO: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa Txikiak eta Ertainak, Pymeak, Tailerrak.

emilio.toyos@catalanaoccidente.com
Eibarko Txikito, 8 -behea Tel. 943 200 908

Gimnasia erritmikako San Andres txapelketa bihar kiroldegian

KATALUNIA, ERRIOXA, ARAGOI ETA EUSKAL HERRIKO GIMNASIA ERRITMIKOKO TALDEEK zita dute bihar Ipurua kiroldegian XXIII. San Andres Txapelketa dela-eta. Zaragozan jokatu den Espainiako Txapelketaren aurreko lehiaketa garrantzitsuena izango da eta taldeek prestaketarako erabiliko dute biharko zita.

Alebin, infantil, junior, senior eta lehen mailako 200 gimnastak hartuko dute parte bihar Ipuruan eta gimnasta errusiar biren erakustaldia ere egongo da. Bata, 12 urteko Daria Anenkova da, Rusiako junior selekziokoa; eta, bestea, selekzio bereko Alexandra Focanova.

Ipurua taldeak Zaragozara joango diren talde bi aurkeztuko ditu biharkoan. Batetik, Olatz Ibaibarriaga, Olatz Lascurain, Carmen Gamundi, Joñe Perez eta Irati Alonsok osatzen duten lehen mailako taldea. Eta bestetik, junior mailako Irati Yarza, Noelia Bedia, Kristina Alegria, Ane Gonzalez eta Raquel Guerra.

1998ko txapeldunei omenaldia

Egunean zehar Lehen Maila eta 1998ko Espainiako Txapelketa lortu zuen taldea omenduko dute. Lur Ibarra, Ane Susaeta, Vanessa Cardeñosa, Miriam Merino eta Leire Zamakolak osatzen zuten taldea.



Kalamuako judokak Maria Merino eta Javier Garcíaekin zapatuko jardunaldian.

45 neska-mutil jiu-jitsu ikastaroan

JAVIER GARCÍA MUNDUKO ETA MARIA MERINO EUROPAKO AZPITXAPELDUNEK KALAMUAKO INSTALAZIOETAN azken zapatuan emandako jiu-jitsu ikastaroan 45 lagun izan ziren, Errioxatik, Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorrita. Eibar-

ko ordezkariak lehiaketa eta torneoen sasoi betean jarraitzen dute eta, horrela, bihar Errioxako txapelketa autonomikoetan hartuko dute parte eta etzi, bestalde, infantil mailako Eibarko 38. judo torneoak jokatu da Ipurua kiroldegian.

Eibarko adin desberdinetako mendizaleak mendi-martxetan

URRIKO AZKEN ASTEBURU BIETAN GURE HERRIKO ADIN DESBERDINEKO MENDIZALEENTZAT ANTOLATUTAKO mendi-martxa bi izan genituen. Hilaren 23an Gipuzkoako Eskola Mendizaletasuneko Finalistaren Eguna egin zen Andoainean, 45 ikastetxetako 976 ikasle eta 585 laguntzailearen partehartzearekin; tartean 107 ikasle eibartar izan ziren (28 La Salle Isasikoak, 26 San Andresekoak, 18 Mogel

Ikastolakoak, 13 Aldatzekoak, zazpina Urkizuko eta Arrateko Andra Marikoak, hiruna Amañako eta La Salle Azitaingokoak eta bi Itziokoak). Astebete geroago, 30ean, Helduen Ibilaldi Neurtua egin zen Mutrikun, 15 elkarteko 210 mendizalaren parte-hartzearekin; hor Klub Deportiboko bost mendizale izan ziren (Iñaki Arriola, Juan Luis Garate, Ernesto Oiarzabal, Jesus M^a Txurruka eta Edurne Aldalur).





Gipuzkoako Eskola Mendizaletasuneko Finalista Eguna bateko artxiboko irudia.



Waterpoloko kadeteak asko hobetu dute urtebetean

WATERPOLO NAVARRA TALDE HANDIARI AURRE EGIN ZIOTEN ZAPATUAN ORBEAN Urbat-Urko-tronik-eko kadete mailako waterpolistek eta, 7-12 galdu bazuten ere, laurdenetako bitan berdintzea lortu zuten nafarrekin. Azken hauen maila adierazteko, aurreko asteburuan 22-0 nagusitu zitzaizkien Waterpolo Donostikoei.



Azaroak 30
ASTELENA
Aritz Lasa / Peñagarikano
Idoate / Pascual
XALA / MERINO II.a
TITIN III.a / BARRIOLA
Apezetxea / Larrinaga
Ongay / Arruti



aspepelota.com

ERRESERBAK


661 259 009 (Olaya)

Goizez: 12.00/13.00

Arratsaldez: 15.30etatik aurrera

Berriro Eibarren, euren azken lanarekin

Pirritx, Porrotx & Marimotots



ZAZPIKOLORUA

Abenduaren 10ean:

16.30 / 19.00

Abenduaren 11n:

16.00 / 18.30

Lau saio: 4

26tik aurrera sarrerak salgai (7'00 euro)

e&m argazkidenda, El Tío Palancas eta Gozoki-n

ZAZPIKOLORUA

Zarzuclari keinua egingo diote Sostoa abesbatzako kideek datorren eguaztenean, San Andres egunean, Coliseoan 19.30etan. Ez da betiko zarzuela erreprezentazioa izango, baizik eta kontzertu abestua, "baina kolorez margotua bere nortasuna susmatzeko".



JESUS MARI SAGARNA, Sostoako zuzendaria:

"Zarzuela erreprezentazio gabe abestuko dugu"

- *'Zarzuclari keinua' proiektua aurkeztuko duzue eguaztenean Coliseoan. Zertan datza?*

Keinu berebarekin argi laga nahi dugu ez dugula zarzuela bat bakarrik egingo eta ez dugula erreprezentatuko ere. 17-18 zarzuela dira ukituko ditugunak, toketxo batzuk, keinutxo bat zarzuela munduari. Pentsatzen genuena baino handiagoa da zarzuela, eta aukeraketa egin dugu 1951 eta 1900 arteko zarzuelen artean. Hor zarzuela handia deitzen dena aukeratu dugu, horrek dira aukeratu ditugun gehienak. Horrez gain, XVIII. mendeko adibide motz batzuk ere aurketuko ditugu. Euskal munduan ere, 1851tik 1900ra, badaude zenbait titulu eta bi aukeratu ditugu. Zarzuela munduan ezagunenak direnak kanpoan laga ditugu hurrengo baterako.

- *Zer berezitasun ditu zarzuela batek?*

Eszena mundua da hori, orduan, guk egingo dugun hortan zerbaitek huts egiten du, ez dagoela eszenarik. Laburpen bezalakoak askotan egiten dira eta era hortatik hartu dugu. Zarzuclaren zentzua da erreprezentazioa dela musikaren munduan, baina guk sekula ez dugu erreprezentaziorik egin. Konturatu ginen Eibarren badagoela mundu hori gustatzen zaion jendea eta horrelako zerbaite egitea pentsatu ge-

nuen, adibide batzuk. Era askotarikoa da saioa. 17-18 zarzuelen atalak egingo ditugu, orduan, gizonezkoak bakarrik, emakumeak bakarrik, koro orokorra, bakarlariak, bina-ka... arituko gara.

- *Koroak bereziki prestatu behar izan du saioa?*

Prestaketa ez da ezberdina izan beste kontzertuekin alderatuta. Gure eskura dauden lanak aukeratu ditut interpretatzeko. Badaude obra batzuk, tira, nahiko konplikatuak direnak (barreak), demasak! Nolakoak garen eta nolako ezaugarriak kontutan hartuta osatu dugu programa. Bestela ez da aparteko musika, bakarrik eszenara egokitutako musika dela.

- *Eibarren eskainiko duzue saioa, baina pentsatu duzue beste leku batzuetan ere aritzea?*

Eibarren beste egun batean egitea zen gure asmoa, baina ezin izan dugu. Orduan, batzuk sarrera barik geratu dela dakigu, baina ez dakigu hemen beste saio bat gehiago egitea merezi izango duen. Kanpora joatea? Elizetan aukera asko ditugu aritzeko, arazo gabe, baina han zarzuclak egitea ez da egokia. Antzokiak toki egokiak dira, baina programa nahiko luzea da (ordu bi) eta toki erosoak behar dira. Gainera, herrien programazioak eginda daude eta zaila da tokia egitea. Dena den, begira gabiltza.



Rosendoren kontzertu arrakastatsua

JENDETZA BATU ZUEN ROSENDOK ZAPATU GAUEAN, AS-TELENA FRONTOIAN ESKAINI ZUEN KONTZERTUAN. Lambretta klubekoek antolatutako emanaldiak, gainera, sorpresaren bat edo beste izan zuen eta, besteak beste, abeslaria frontoian Lambretta baten gainean sartzea lortu zuten arduradunek, gaztetan horrelako batean istripua izan ondoren ez zela berriz Lambretta gainean ibiliko hitz emanda bazuen ere.



Jose Luis Vivar Topalekuan

GAUR ARRATSALDEAN HASI ETA ABENDUAREN 4-RA BIRTARTEAN JOSE LUIS VIVAR ARTISTAK EGINDAKO egurrezko tailuak egongo dira ikusgai Topalekuan, Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan. Erakusketa ohiko ordutegian zabalduko dute, asteleheneetik barixakura 19.00etatik 21.00etara eta asteburu eta jai egunetan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



Garaguneko margoak Untzagan

UNTZAGAKO JUBILATUEN ETXEA GOYENEHE FUNDATIOAREN ARDURAPEKO Garagunekoan dihardutenen margo erakusketa hartuko du datozen egunotan. Erakusketa ohiko ordutegian bisitatu daiteke, astegunetan 19.15etatik 21.15etara eta zapatuetan 12.00etatik 14.00etara.

San Andres bertso jaialdia gaur Portalean

GAUR GAUEAN, 22.00-ETATIK AURRERA PORTALEKO ARETO NAGUSIAN BERTSO JAIALDIA EGINGO DA, ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAREN ESKUTIK. Jaialdian Manu Goigana, Nerea Elustondo, Xabi Astigarraga, Odei Barroso, Ainhoa Mujika eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariak jardungo dute. Sarrerak salgai daude, 5 eurotan Depor, Kultu eta Sagar Bitza tabernetan (egunean bertan erosteko aukera ere izango da). Jaialdia hasi aurretik, baina, ohikoa den moduan ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleek euren bertsoak abestu eta saria jasoko dute. Aurreko astean eman zituzten ezagutzera aurtengo lehiaketako irabazleen izenak: umeen mailako irabazleak Aurelis Dalila Martinez (Arrateko Andra Mari ikastetxekoa) eta Irati Etxeberria (Juan Antonio Mogel ikastola) izan dira eta helduen mailan Eñaut Uruburu (Abadiño) eta iaz-



ko edizioan garailea izan zen Aitor Albistur oreretatarra nagusitu dira, lehiaketara aurkeztutako 150 bertso-sorten artean.


Armagintza da aurten Exfibar-en ardatza

EXFIBAR XLII. SEILU ERAKUSKETAK AURTEN ARMAGINTZAREN HISTORIA HARTUKO DU GOGOAN. Portalean, erakusketa aretoan domekan hasi eta abenduaren 4ra arte martxan egongo den era-

kusketak ordutegi berezia izango du: astelehenetik barixakurra 18.00etatik 20.00etara eta zapatu eta domeketan 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara (azaroaren 30ean, San Andres egunean

itxita egongo da). Bestalde, José Angel Lópezek aurtengo ediziorako sortutako jatorrizko zigilu-marka ipintzen atzo jardun zuten.

Bestalde, erakusketa urtero antolatzen duen Arrate Filatelia Elkartearen liburuxkak interneten, sarean zintzilikatu dituzte Ego Ibarra batzordearen webgunean, asteburuan zabalduko duten erakusketaren aitzakiarekin. Ego Ibarra jasota duenaren arabera, Arrate Filatelia Elkarteak 1969. urtean egin zuen lehenengo erakusketa, udaletxe zaharreko liburutegian: *"Harrezkero, erakusketarekin batera Eibarko gauzen inguruan kaleratu izan dituen liburuxkak sareratu egin ditugu"*.



Gure herriko armagintzaren historiari erreposoa emango diote aurten seiluak erabiltza.

Serenatarekin ospatu zuten Santa Zezilia asteburuan

MARTITZENEAN SANTA ZEZILIA EGUNA ZELA-ETA, CIELITO MUSIKA BANDAKOEK ETA USARTZA TXISTULARI TALDEKOEK asteburuan emanaldi bereziekin ospatu zuten musikarien babeslearen eguna, emanaldiak asteburura aurrera-

tuta. Usartza Txistulari Bandak zapatu goizean, 11.00etan kalejira egin zuen eta Cielito Musika Bandak gidatzen duen Santa Zezilia Serenata, berriz, ohikoari jarraituta zapatu gauerdian abiatu zen "Quinto levanta"-ren erritmora kalejiran.



laburrak

GABONAK EL CORTE INGLES-EAN

Gaur arratsaldean, 19.00etan piztuko dituzte El Corte Inglés merkataritza dendakoek Gabonetako argiak. Ekitaldira gerturatzen direnei txanpaina eta turroia banatuko dizkiete. Bestalde, zapatu arratsalderako, umeendako Gabonetako tailerra antolatu dute han bertan (areto nagusian), Jakin eta Jolas pailazoekin, 18.00etatik aurrera.

DJ EMANALDIA

Zapatu gauerdirako minutu baten faltan, 23.59etan hasiko da DJ Gaua Calbeton kaleko Living Cafe tabernan. Saioa eskaintzen jardungo duten disko-jartzaileak Koldo Intermusic (Nothing Without) eta Iker vs. Boliki (Zarata System) izango dira.

KARRIKAK URTEBETE

Karrika taberna zabaldu zutela urtebete igaro dela gogoratzeko, zapatu gauerdian DJ Barraka Destroy vs. DJ Okerreko zuzenean entzuteko aukera izango dute bertara gerturatzen direnek, urteurrena ospatzeko antolatutako saio berezian.

Erakusketa eta ipuinak umeen liburutegian

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAK BIHAR ZAPATUKO IPUINA HARTUKO DU, BAINA BERTAKO ARDURADU-NEK AZALDU DUTENARI JARRAITUTA, biharkoa urtean zehar egiten diren saioengandik erabat ezberdintzen da, "kultur aniztasunean oinarritutako ekimena Munduko Paisaiak kanpainaren barruan kokatu dugulako".

Dar-Dar produkzioak eskainiko du "Babel: munduko ipuinak munduko kulturak" izenburuko lana, 18.00etan hasita. Baina aurretik, 16.30etan ipuin-kontakizunarekin lotuta-

ko erakusketa ipiniko dute martxan liburutegian bertan: "Helburua ikusleei orokorrean, haur zein helduak izan, munduko beste kultura batzuk gerturatzea da, beste herrialde batzuetako jendearekin modu naturalean elkarbizitzen eta haien kultura baloratzen ikas dezagun". Erakusketarako, EAEn gure artean bizi diren etorkinen jaioterriak hartu dituzte kontuan: Bolivia, Kolonia, Angola, Nikaragua, Nigeria, Ekuador, Senegal, Errumania, Txina, Maroko eta Errusia, hain zuzen ere EAEko etorkinen artean talderik esan-




Dar-Dar produkzioak "Babel: munduko ipuinak munduko kulturak" eskainiko du.

guratsuen osatzen dutenen jatorrizko herrialdeak.

Erakusketak haurren parte-hartze aktiboa bilatzen du eta, horretarako, txikienentzat (3-5 urte bitartekoentzat) marrazketa txokoa egongo da martxan eta 6-11 urte bitartekoentzat,

berri, irakurketa txokoa eta fitxa didaktiko-ludikoak prestatuko dituzte. Gainera bakarrizketa antzestu baten bidez herrialde horietako musikaz, ipuinez eta bestelakoez gozatzeko aukera izango dela aurreratuko dute antolatzaileek.




Zuloagak bere marka propioa gainditu du oraingoan Madame Soutyren irudiarekin.

830.000 euro ordaindu dituzte Zuloagaren koadro batengatik

ORAIN ARTEKO MARKA GUZTIAK HAUTSI DITU IG-NACIO ZULOAGA MARGOLARI EIBARTARRAK margotutako koadroengatik enkantean ordaindu duten azken kopuruak: 713.250 libera (830.000 euro) ordaindu dituzte


1921ean margotutako "Madame Souty sofan etzanda" izenburuko lanarengatik Londresen, Sotheby's enkante etxe entzutsuan egindako enkantean. Orain arte garestien saldutako Zuloagaren koadroa "Zezenketa Eibarren" zen, 1995ean Nueva Yorkeko Sotheby's etxeak 1.075.000 dolarretan (680.160 liberatan) saldutako margolana. Nazioarteko bildumagile asko erakarri zituen enkantean, Zuloagaren lanarekin batera Joaquín Mir, Jenaro Pérez Villamil eta Julio Romero de Torres-en beste batzuk ere atera zituzten enkantera.




Txotxongiloak protagonista Titirijai-n

ASTELEHENEAN ABIATUKO DA TITIRIJAI 2011 XXIX. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA EIBARREN,

15.00etan Hezkuntza Esparruan eskainiko duten "Pepo ¿a dónde vas?" antzezlarekin (Buenos Aires Títeres, Argentina; Seña y Verbo, Mexiko; La Canela, Espainia). Urteroko moduan, Tolosako jaialdiarekin elkarlanean antolatutako ekimenari esker, gure herrian hainbat antzezlarekin gozatzeko aukera izango da. Hurrengo emankizuna abenduaren 1ean izango da, hori ere 15.00etan Hezkuntza Esparruan: "Basura por ciruelas" (Pro Rodopi, Bulgaria). Horiek ikastetxeentzat pentsatutako emanaldiak dira eta sarrera doan izango da



(erretsebak egiteko 943-208444 telefono zenbakira deitu behar da). Eta hirugarren eta azken emanaldia Coliseoak hartuko du, umeendako hileroko antzezkizunen programazioaren barruan, abenduaren 3an 17.00etatik aurrera: "Zheng-He, cuando llegaron los barcos dragón" (Karin Schäfer Figuren Theatre, Austria). Sarrerak 4 euro balio du.



BEZeRo GUZtiEndaKO San AndRes Zoriontsuak!

943 20 67 65
Bista Eder, 11



Oishi
su beroa
jatetxea

Eguneko menuak
Bokatak
Razioak
Menu bereziak

F. Calbeton, 11 **943 03 12 36**

- Gosariak 08.00etatik aurrera
- Pintxo beroak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak




OISHI
PINTXO BARRAZIAK

CATERING

943 20 67 65
627 41 78 33
Bista Eder plaza

MAIXA TABERNA Calbeton, 8
943-031271

- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Kazuelitak
- Pizakak



Onda pasau!

XOK

TXOKO

Giro alaiak Sanandresetan!

**UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR**



WOK 999
TEL. 943-121672 *jatetxea*




Otaola Etorbidea, 3 - 2. solairua
(EROSKlren ondoan)

ORDUTEGIA:
bazkariak (12.00-16.30)
afariak (20.00-24.00)

buffet eskura



Gizonezkuak etxeko-lanetan laguntzen dabe?




OLATZ ASTIGARRAGA
38 urte
proiektu arduraduna

Gure etxian partekatu egiten ditugu biharrak, baiña ez da oin-diok %50-%50 banaketara ailegatzen. Halanda be, nahiko ekilibratuta dago. Gurasuenian, baiña, ez da holan. Orokorrian pentsatzen dot gauzak pixkanaka bardintzen doiazela.

NATALIA ACOSTA
27 urte
fruta saltzaillia

Begittantzen jata gizon batzuek egiten dabela etxeko-lanak, baiña gitxi. Gauza batzutan ibiltzen dira, baiña plantxia egiñ eta arropia eskegi, adibidez, ez ditue egiten. Bazkarixa egiten dabela begittantzen jata orokorrian.




JOSE MARIA LUPEÑA
64 urte
jubilaua

Ezkongabia nintzanian, gurasuekin bizitzen, danetik egiten eban eurak zaharrak ziralako. Gero, ezkondu nintzanian, bardin jarraitu dot. Bazkarixa egiten dot, errekauak... plantxia kenduta, danetarik. Behin prakak erre jatazen eta ordutik ez dot plantxia barriro hartu.

IÑIGO SAN MARTIN
15 urte
ikaslia

Gure etxian aittak lantzian behin laguntzen dau eta batzuetan bazkarixa egiten dau. Nik mahaixa ipintzen dot eta ohia egiten dot. Bihar hori, halanda be, arrobiakin txandakatzen dot.



EGOITZA NAGUSIA
Bilbarrrieto 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errusketako labora

Egizkorien (biguri) pizgorien
Partikular, natibo eta oiguru erretze zerbitzuak
Korako - Eskala - Utzumenako eskala
Futbol Herri eskola ospitaleko herriko zerbitzuak
Nazio eta Nazioarteko zerbitzuak

Mugica
Ehartzeta

TELEFONOA (34 940) **943 201 951**

FAMILIA ABOKATUA
ELENA MUGUERZA ORMAECHEA

**Familiako eta ondorengotzetako
(herentziak) abokatua**

Dibortzioak

Gaitasun-erak

Ondorengotzak

Aitatasun erreklamazioak

Erregimen ekonomikoa


Juan Gisasola, 4 - 2. eskuma
691 442 424 94 661 22 00

laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, BEÑAT Castillo Isasi, atzo urte bi egin zenduazelako. Etxekuen partez.




Zorionak, YUNIOR Manuel Villafañe Rosario, atzo 32 urte bete zenduaz-en-eta. Se-me-alaben partez.




Zorionak, BASILIO Txurruka, gaur urtiak egitten dozulako. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, INTZA Apellaniz Murillo, hara negun bost urte bete zenduaz-en-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, ENEKO Gómez Chimeno, gaur lau urte egitten dozul-eta. Aitaxo, amatxo eta famelixaren partez.




Zorionak, LOREA, zure 9. urtebetetzian. Oso egun ona pasatu eta muxu haundi bat danon partez!!




Zorionak, M^a CARMEN (hillaren 22xan bete zenduaz-en urtiak) eta UNAI (astelehenian lau urte egingo dozuz, mutill haundi!). Muxu pillua famelixa guztiaren partez.




Zorionak, IKER (4 urte) eta NAHIA (8 urte). Muxu haundi bana famelixaren partez.




Zorionak, ALEJANDRO Merino Arnaiz, hillaren 20xan urtia bete zendualako. Muxu haundi bat etxeko guztiaren partez.



Zorionak, NAHIA Galán Azpiri gure printzesa, hillaren 14an zazpi urte egin zenduazelako. Muxu potolo-potolua famelixaren partez.




Zorionak, NOAH! Hori bai merendolia domekakua. Lau urte badakazuz honezkeru, sorgintxo. Patxo haundixa danon partez. Koko eta Koala.



Zorionak, amama MARIA, hillaren 28xan 100 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HAIZEA, martitzenian bi urte egingo dozuzelako. Famelixaren partez.




Zorionak, ARRATE, astelehenian lau urte beteko dozuzelako. Etxekuen partez.

zinea Coliseoan




"No habrá paz para los malvados"
Zuzendaria: Enrique Urbizu
Aktoreak: Jose Coronado, Rodolfo Sancho, Juanjo Artero, Helena Miguel

25ean: 22.30
26an: 17.00, 19.45, 22.30
27an: 17.00, 20.00
28an: 20.30



"El gato con botas"
Zuzendaria: Chris Miller
Pertsonaiak: Gato, Kitty Zarpasquaves, Dumpty, Jack

25ean: 22.30
26an: 17.00, 19.45, 22.30
27an: 17.00, 20.00
28an: 20.30



"La saga Crepúsculo: Amanecer"
Zuzendaria: Bill Condon
Pertsonaiak: Kristen Stewart, Robert Pattinson, Taylor Lautner, Dakota Fanning

25ean: 22.30
26an: 19.45, 22.30
27an: 20.00
28an: 20.30

HILDAKOAK

- J. Gabriel Iturricastillo Gabilondo. 65 urte. 2011-XI-13.
- Agustín Mujika Izagirre. 83 urte. 2011-XI-17.
- Carmen González López. 90 urte. 2011-XI-18.
- Rufino Gorrotxategi Askasibar. 81 urte. 2011-XI-20.
- Justina Olabe Aristorena. 88 urte. 2011-XI-21.
- Jose M^a Laborda Kruzelegi. 84 urte. 2011-XI-21.

JAIOTAKOAK

- Kevin Rojas García. 2011-XI-10.
- Jon Aldalur Ramos. 2011-XI-13.
- Irati Aldalur Ramos. 2011-XI-13.
- Irati Errekalde Arés. 2011-XI-13.

horoskopoa

ARIES

Pasa dira hauteskundeak. Agur alderdi bakoitzaren karteletan eta kalean euren musika entzuteari. Politikan interes gehiago izango duzu orain.

TAURUS

Proiektu bat aurrera eramateko ardura izango duzu, baina lehenik ingurukoen babesa lortu. Bakarrik ekitea zaila izango da bestela.

GEMINI

Normalean azkarra zara eta sortzen diren arazoak berehala konpontzen dituzu, baina orain gertatuko zaizuna ez da konpontzen hain erraza izango.

CANCER

Ematen du kriseiluko jeinuarekin topo egin duzula, zure nahi guztiak betetzen dira-eta! Eskatu zerbait besteentzat ere, eskuzabala izan.

LEO

Nonbaitera joateko asmoa baduzu, informa zaitez aurretik errepideen egoera nolakoa den. Gero ez esan abisatuta ez zeundenik, lagun!

VIRGO

Laga taloren bat besteentzat ere! Bai, oso gozoak daude, baina nola jan ahal dituzu hainbeste talo? Sabela dagoeneko puztuta duzu!

LIBRA

Zer daukazu buruan bueltaka? Ez egiozu duena baino garrantzia gehiagorik eman. Konponbidea duela konturatuko zara berehala.

SCORPIUS

Diru pixka bat aurreztu beharko zenuke, hurrengo asteotan gastu handiak izango dituzu-eta. Ez zaizu loteria tokatuko; itxulapikoa bete.

SAGITTARIUS

Pixka bat inozentea zara eta edozer gauza sinesten duzu. Ba argi ibili, demaseko gezurra esango baitzute hurrengo egunotan. Kontuz!

CAPRICORNIUS

Taldean lan egin beharko duzu, baina taldeko pare bat kideren artean hainbat arazo sortuko dira. Bakegile lanak egin beharko dituzu.

AQUARIUS

Pertsona batekin geratu eta berandu helduko zara. Txarrena izango da berak alde egingo duela, nazkatuta. Zergatik zara hain inpuntuala!

PISCIS

Ba al dakizu San Andres egunean azoka dagoela herrian? Normala, ordu txikietan etxera bazoaz, nola jaikiko zara goiz ba? Jai duzu!

Barixakua 25

INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA

13.00.- "Berdintasun harremanak bai, eraso sexistarik ez" elkarretaratzea. Untzagan (udalaxe parean).
18.00.- Bideoforuma: "Nagore Lafage". Portalean (3. pisuan, ikastaro gelan).

GABONETAKO ARGIAK

19.00.- Gabonetako argiak piztea. El Corte Inglés-en.

KONTZERTUA

21.00.- Awakening The North, Artaza Combat eta New Breed. Sarrera: 3 euro. Gaztetxean.

BERTSO JAIALDIA

22.00.- San Andres Bertso Jaialdia eta bertso-paper lehiaketako irabazleei saria banatzea. Sarrerak: 5 euro (Sagar-Biiza, Kultun eta Deporren eta egunean bertan Portalean). Portalean.

KONTZERTUA

22.15.- Hostoak, Debagoieneko Osteraren barruan. Sarrera: 12 euro. Ermua Antzokian (Ermuan).

KONTZERTUA

23.00.- Bikustik (Klasikoak akustikoan, Elgoibar). Tas Tas kafe antzokian.

Zapatua 26

TXISTORRA EGUNA

09.15/22.00.- VIII. Txistorraren Eguna. Kilometro bat txistorra prestatu eta pintxoetan salgai, kirol erakustaldiak, musika, jokoak... Eibarko Txirindularien Elkarteak antolatuta. Untzagan.

1937-KOEN BAZKARIA

12.00.- Untzagan batzea, talde argazkia ateratzeko.
12.30.- Piskolabisa, Peña Txinberan.
14.00.- Txikiteoa, Ipuruako tabernetan.
14.45.- Bazkaria, Iruki sagardotegian.

URTEURREN JAIA

12.30.- Hildako bazkideen aldeko meza, Untzaga abesbatzarekin. Ohorezko aureskua. San Andres elizan. Piskolabisa Untzaga jubilatuta etxean.

14.30.- Bazkaria eta omenduei oroigarriak ematea. Dantzaldia. Kantabria jatetxean (autobusa Ego Gainetik, 14.15etan).

MUNDUKO PAISAIK

18.00.- "Babel: munduko ipuinak munduko kulturak", Dar-Dar taldearen eskutik (4-10 urte bitarteko umeentzat). Iraupena: 50 minutu. Umeen liburutegian.

GABON TAILERRA

18.00.- Umeendako Gabonetako Tailerra, Jakin eta Jolas pailazoekin. El Corte Inglés-en.

AFARIA

21.30.- Kanpotik Eibarko Bakillauaren Kofradixaren kapitulua ospatzera etorritakoekin afaria. Estrella elkartearen.

KONTZERTUA

22.00.- Etxe eta Lorelei kontzertuan, Debagoieneko Osteraren barruan. Sarrera: 8 euro. Andres Isasi Musika Eskolan (Getxon).

KONTZERTUA

23.00.- Tribute Joe Satriani, Mikel Arrieta eibartarraren eskutik. Tas Tas kafe antzokian.

DJ EMANALDIA

23.59.- DJ Gaua: Koldo Intermusic (Nothing Without), Iker vs. Boliki (Zarata System). Living Cafe-n.

DJ EMANALDIA

00.00.- Karrikaren I. urteurrena: DJ Barraka Destroy vs. DJ Okereko. Karrika tabernan.

Domeka 27

KOFRADIXAREN KAPITULUA

10.30.- Bakillauaren Kofradixaren XVIII. Kapitula. Kofradietako ordezkariak ongi etorria eta hamarretakoa, Arrate Hotelean eta Usartza Txistulari Bandak lagunduta kalejira (11.30etan), Portalean. Ohorezko kofradeen izendapena. Gorutz abesbatzaren emanaldia. Portalean.

BAKAILAO TXAPELKETA

11.30.- XIX. Bakailao Txapelketa San Andres Saria. Untzagan.

KONTZERTUA

12.30.- Cielito Musika Bandaren Santa Zezilia kontzertua. Coliseoan.

Astelehena 28

TTIRIJAI 2011

15.00.- XXIX. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia. "Pepo ¿a dónde vas?" (Buenos Aires Titeres, Argentina; Seña y Verbo, Mexiko; La Canela, Espainia). Hezkuntza Esparruan.

Martitzena 29

SANANDRESAK GAZTETXEAN

19.00.- Trikipotea, Untzagan hasita.
22.00.- Bertso-afaria, Gaztetxean.

SANANDRESAK GASTEIZEN

21.00.- Gasteizen bizi diren eibartarren XIII. afaria, Conde de Alava jatetxean (Cruz Blanca, 8).

SANANDRESAK

23.00/02.00.- Dantzaldia, Arno Djarekin. Untzagan.
00.00/03.00.- Testing (sustantzien testa). Drogen inguruko informazioa zabaltzeko karpa. Ego Gainen.

Eguaztena 30

ORMAETXEA V. MEMORIALA

18.00.- Alberto Ormaetxea V. Memoriala. Eibar-Erreala (beteranoak) norgehiagoka. Antolatzailea: Deparkel Debabarrena Parkinson Elkarteak. Ipurua foball zelaian.

KONTZERTUA

19.30.- "Zarzuclari keinua", Sostoa abesbatzaren eskutik. Atal bitan abestutako kontzertua. Sarrerak: euro bi (leihatilan). Coliseoan.

Eguena 1

TTIRIJAI 2011

15.00.- XXIX. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia. "Basura por ciruelas" (Pro Rodopi, Bulgaria). Hezkuntza Esparruan.




erakusketak

– Azaroaren 30era arte
DAVID RODRIGUEZen "El clamor del bosque" argazki erakusketa. *El Ambigú kafetegian.*
PATXI JATOren argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
"JUAN LUIS ULAZIA OROITUZ" argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
MUNDUKO PAISAIK, Txinari eskaintako erakusketa. *Juan San Martin Liburutegian.*
FERRARI TESTAROSSA automobila ikusgai. *El Corte Inglés-ean* (beheko solairuko sarreran, gizonaen departamentuaren aldamenean).

– Abenduaren 4ra arte

JOSE LUIS VIVARen egurrezko tailuak. *Topalekuan.*
EXFIBAR 2011 XLII. Seilu Erakusketa. Armagintzaren historia gogoan. *Portalean.*
 Ordutegi berezia: astelehenetik barixakura (18.00-20.00) eta zapatu eta domeketan (12.00-14.00 eta 18.00-20.00).



farmaziak

25, barixakua
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
 GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
26, zapatua
 EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
27, domeka
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
28, astelehena
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
 GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
29, martitzena
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
 GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
30, eguaztena
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
 GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
1, eguena
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
2, barixakua
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

lehiaketak

– **Ruben Cortijo Memoriala I. Argazki Lehiaketa.**
 Gaia: San Andres Azoka. Lanak entregatzea: Laurel&Hardy Pub (Untzaga, 11). Abenduaren 11ra arte.

telefono jakingarriak

SOS deiak112
 Pegora010
 Udaletxea943 70 84 00
 Portalea943 70 84 39
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25
 Mankomunitatea943 70 07 99
 Debegesa.....943 82 01 10
 KIUB943 20 38 43
 Epaitegia943 03 34 00
 Iberdrola901 20 20 20
 Naturgas902 12 34 56
 DYA Larrialdiak.943 46 46 22
 Gurutze Gorria..943 22 22 22
 Mendaro osp.....943 03 28 00
 Anbulategia.....943 03 25 00
 Torrekuia943 03 26 50
 Errepideak902 11 20 88
 Ertzaintza943 53 17 00
 Eusko Tren902 54 32 10
 Pesa902 10 12 10
 Taxiak.....943 20 30 71
943 20 13 25
 Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
 Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.


tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

5	9					7		
		1			2			
	7			1				9
		3						6
		7	3	2	9	4		
8						5		
1				9			5	
			5			3		
		5					4	8

DENBORAPASAK



AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela-jangela, sukaldea eta komun bi. Garajea eta trasteroa. Eraiki berria eta jantzita. Saltzeko presa du. Tel. 618-400241 eta 648-848581.
– Pisua salgai Deban, Osio kalean. 3 logela, jangela-egongela, sukaldea eta komuna. Igogailuarekin. Berriztuta. 205.000 euro. Tel. 645-186309.

1.2. Errentan

– Pisua alokagai Ermuan. Bi logelakoa. Igogailua. Prezio onean. Tel. 661-653160.
– Familia batek bi edo hiru logelako pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 673-025316.
– Asola-igartzan babes ofizialeko atikoa alokagai denboraldi batean kanpoan lan egin behar dudalako. Inkilinoaren soldataren araberako prezioa (186-426 euro artean). Garajearekin. Berria, estrenatzeko. Tel. 617-926344.
– Pisua hartuko nuke alokairuan konpartitzeko. Tel. 688-819475.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Ilepaindegi berria alokagai arazo personalengatik. Prezio onean. Tel. 667-806737.
– Asua-Errekan garaje itxia alokagai. Tel. 678-426136.
– Urkizu inguruan garaje marraduna alokagai. Tel. 609-453946.
– Bi garaje alokagai Abontzan. Bata marraduna eta bestea itxia (handia). Tel. 617-688311.
– Lokala edo garajea behar dut altzariak gordetzeko. 70 euro ordaintzeko prest hileru. Tel. 678-641500.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 608-147559.
– Emakumea eskaintzen da jostun lanak edo garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 617-043058.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 679-103469.
– Neska eskaintzen kamarera jarduteko, umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 675-607031.
– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Tel. 658-371925.
– Neska eskaintzen da kamarera jarduteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 627-162936.
– Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko. Tel. 673-025316.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 676-858210.
– Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko eta nagusiak edo haurrak zaintzeko. Tel. 652-532589.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.
– Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko. Tel. 638-527489.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 638-153016.
– Mutila eskaintzen da kamarero eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Esperientzia. Tel. 943-257815 eta 692-332871.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 943-257815.
– Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo haurrak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 609-148861 eta 943-257815.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-180132.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernak eta soziedadek garbitzeko. Tel. 689-974001.
– Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Tel. 699-232823.
– Mutil gaztea eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan eta nagusiak zaintzeko. Erabateko disonibilitatea. Tel. 615-720384 eta 943-257815.
– Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta haurrak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 669-068439.
– Emakumea eskaintzen da haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Externa edo orduka. Tel. 623-150376.
– Neska eskaintzen da haurrak zaintzeko eta klase partikularrak emateko. Tel. 660-353703.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
– Neska eskaintzen da kamarera jarduteko, sukaldari-laguntzaile moduan, garbiketarako egiteko eta nagusiak edo haurrak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 608-376387.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdur/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta haurrak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 608-474923.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko, asteburuetan barne. Tel. 618-052967.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 657-396018.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 672-572526.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldez garbiketarako egiteko, haurrak edo nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Baita asteburuetan ere. Tel. 616-397348.
– Neska eibartarra eskaintzen da kamarera jarduteko. Esperientzia taberna eta jatetxeetan. Tel. 627-281938.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 616-826542.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 669-311385 eta 636-362251.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 676-942532.
– Mutila eskaintzen da igeltsero moduan eta garbiketa lanetan jarduteko. Tel. 689-286167.
– Emakumea eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 690-925929.
– Emakume erizaintza-laguntzaile eta ilepintzaile tituluduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 695-898349.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 682-533597.
– Gizona eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 657-395980.
– Neska eskaintzen da gauetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 651-836353.

– Gizona eskaintzen da kamarero jarduteko. Tel. 943-531048.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 681-322442.
– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 608-293711 eta 943-744492.

4.2. Langile bila

– Emakume euskalduna eta esperientziaduna behar da goizez umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 610-603631.
– Kamarera behar da asteburuetarako. Tel. 659-539861.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Lizentziadunak DBHko Matematikazko eta Fisikako klaseak ematen ditu. Tel. 943-702089.
– Euskerazko klaseak ematen dira: azterketetarako prestaketa, perfilak, EGA, HABEren mailak. Tel. 620-608065.
– Batxilergorainoko Matematika klase partikularrak emango nituzke. Tel. 695-718855.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bizikleta estatikoa salgai. Oso egoera onean. 190 euro. Tel. 620-608065.
– Haurrentzako Loola Up aulkia salgai. Maxi-cosierentzako egokitzailearekin. Urtebetekoa, gehigarriekin. 100 euro. Deitu arratsaldez. Tel. 635-740726.
– 27 pulgadako Philips telebista salgai, orma-euskarria eta TDT barne. 120 euro. Tel. 943-120308.
– 7-8 urteko neskaendako eskifo arropa eta berokiak salgai. Egoera onean. Tel. 617-171510.
– Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 943-572057.

6.2. Eman

– Umearendako aulki tolesgarria oparitzen da. Deitu arratsaldez.. Tel. 635-740726.

6.4. Bestelakoak

– Gaztetxeko sukalderako materiala behar da. Altzariak ere bai. Tel. 635-191352.

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

09.00-13.00 / 14.30-20.00 Zapatuetan: 09.00-13.00

Gorputz tratamenduak Kabitazioa


- KOIPE GUTXITZEA
- ZELULITIS GUTXITZEA
- AZAL INDARTZEA



Aurpegi tratamenduak


Berehalako eragina duen

GAZTETZE
TRATAMENDUA



Radiofrekuentzia

SENDOTZE TRATAMENDUAK



aurpegiak eta gorputzean:

ZIMURRAK
(BEGI ETA AHO INGURUAK)

Laser fotodepilazioa

ezpaina	10 €	hanka erdiak + izterrondoak ..	100 €
begitartea	10 €	hanka osoak	120 €
kokotsa / patillak	30 €	hanka osoak + izterrondoak ..	150 €
besapeak	35 €	besoak	70 €
izterrondoak	40 €	bularra + sabelaldea	65 €
izterrondoak sartuta	50 €	bizkarra + lunbarra	65 €
izterrondoak + besapeak	70 €	sorbaldak	35 €
alba lerroa	15 €	ipurmasailekoak	35 €
hanka erdiak	70 €		

5 saiorako BONOA

masajea **OPARI**
saioa 35 euro


GEL ATZAZKALAK
MIKROPIGMENTAZIOA
BETILE LUZAPENAK
MASAJEAK (OSTEOPATIA)

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Eibarko BM-n
eta Elgoibarko Netto-n
ere bagaude

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com


IZANE

dekorazioa

TORIBIO ETXEBARRIA, 17
Telf: 943 203868




%10_{eko} deskontua
GABONETAKO
ARTIKULUETAN



DIRDAI

bitxitegia

Toribio Etxebarria, 21
Tel. 943 20 75 33



*Finantziario
formulak galdetu*



GUESS

CPS /port

Tendencia

QUICK

TOY WATCH

ARMAH BASI

ALFEX

D&G